

Herririk Herri | 2

Inyectametalen lan erregulazio eskaria
"bidegabe" jo dute epaileek



Berbaz | 8

Araitz Bizkarra: "Uholdeen ostean Talisko
leku seguruak ikertzen dihardugu"

Kirola | 16

Mendi lasterketei eta atletismoari
lotutako klub berria sortu dute

ABADIÑO | 3

Lan baldintzen aldaketa eske, martitzeneko istripua gogoan

Martitzenean 54 urteko behargin bat hil zen
istripuz, Abadiñoko Unamunzaga enpresan

Sindikatuak kontzentrazioa egin zuten atzo
enpresa aurrean, ikerketa exijitzeko



Atzoko kontzentrazioan dozenaka lagun batu ziren.

KULTURA | 11

Benito Lertxundik jasoko du azokako Argizaola saria

Abenduaren 6tik 9ra ijitoen kultura izango du ardatz
Durangoko Liburu eta Disko Azokak, eta Lertxundi
omenduko du aurten.



Durangaldea | 2

Eguazteneko grebak eragin txikia
izan du Durangaldean

Izurtza | 6

Fosroc enpresan 21 kaleratze
aurreikusi ditu zuzendaritzak

Durango | 4

Bildu, PSE-EE eta Aralar indarrak
batuta bi proiektutan

Abadiño | 4

Murrizketen aurka mobilizazioei
ekin diete Rothenbergerren

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGALDEA

“Aukera bat galdu du langileen kolektiboak”

Eragin txikia izan zuen greba orokorrak; batasun sindikal eza kritikatu dute CCOOk eta UGTk

UGTk, CCOOk, CNTk, CGTk eta LSBk eguaztenerako deitutako greba orokorrak eragin txikia izan zuen Durangaldean. Roberto Martin CCOO sindikatuko ordezkariak esan du eskualdean igarri egin zela ELAK eta LABek deialdia babestu ez izana. Batasun sindikal ezaz hausnartu du Martinek: “Ekintza batasunean kalera irten eta murrizketa eta erreformen aurka egiteko aukera bat galdu du langileen kolektiboak”. Europa mailako mobilizazioa zen herenegungoa, sindikatuen konfederazioak sustatutakoa.

Grebaindustrian izan ei zuen erantzunik handiena. “CCOOk eta UGTk indarra daukagun enpresetan eduki du eragin handiena”.

Martinek adibide legez eman du Forjas Berriz eta Abamotor enpresetan ia behargin guztiak egin zutela grebagaz, eta Alcoa lako hainbat enpresatan %50 batu zirela protestara.

Gainerako sektoreetan jarraitzen txikiagoa izan zen Martinek dioenez. Durangoko kaleak dira horren isla. Ia komertzio guztiak zeuden zabalik, eta herritarrak ere normaltasunez ibili ziren. EAEn grebak ez du arrakastarik eduki, zonaldeka erantzuna desberdina izan arren.

“Ez batzuenak ez besteenak” UGTko Mauricio Garciak aitortu du Durangaldean geratzerik ia ez zela egon: “Batera ez bagoaz, ez dira



Herritarrak eguazten eguerdian eguneroko bizimodua egiten Goienkalen, Durangon.

irteten ez batzuenak ez besteenak”. Baina, CCOOk eta UGTk ere ez zuten babestu irailaren 26ko greba; jakinekoea da faktore politikoek banaketan zerikusia daukatela. Hori bai, oraingoan batasunaren

UGTko Mauricio Garciak aitortu du Durangaldean ia ez zela geratzerik egon

eztabaida handiagoa izan da eta grebarekiko erantzuna ez da hain zaitua izan politikoki. Horren adibide, EH Bilduk eguneko mobilizazioekin bat egin izana, greba babestu ez arren. ■ M. Onaindia

ZALDIBAR

Hainbat aldaketa egin dituzte udal aurrekontuan

“Inbertsio beharrezkoenak lehenetsiz”, udal aurrekontuko hainbat partida aldatu dituzte

Martxoan 2012rako udal aurrekontuak onartu zituztenean marikatuta hainbat diru atal aldatzea proposatu zuen, eguneko ez-ohiko udalbatzarrean, Bilduko udal gobernuak. Kreditu aldaketa horiek egitearen alde bozkatu zuten Bilduko zinegotziek, eta abstenitu egin ziren EAJ, PSE-EE eta PP alderdietako ordezkariak.

Abstenitu egin ziren PSE-EE, EAJ eta PPko ordezkariak, eta alde bozkatu zuten Bildukoek

Udal aurrekontuko hogeita hamarretik gora diru partidan egin dituzte aldaketak. Esaterako, urte hasieran 80 urtetik gorako enxebizitzetan ke detektagailuak ipintzera bideraturiko diru-atala jubilatu enxean hobekuntza lanak egiteko erabiltzea erabaki dute. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, lehentasunak berdefinitu dituzte, eta hasiera batean lan horietara bideraturiko diru-atari 9.000 euro gehitu dizkiete: “Dirua jubilatu enxean gastatzea hobetsi dugu, konponketak behar ditu-eta”, azaldu du. ■ I.E.

BEZ igoeraren eta murrizketen eraginez, zerga eta tasak gora

Murrizketek eta BEZaren (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren) igoerak Udalarri ere eragin diotela, eta “obren prezioak gorantz doazela” ikusita, zergak eta tasak %2,5 igotzea proposatu zuen pasa

den eguneko plenoan, Bilduk. Jarraian ekonomikoaren gaineko zerga eta ondasun higiezin eta trakzio mekanikodun ibilgailuen zergak igo dituzte, esaterako.

Bilduko gobernu taldearen proposamenaren kontra bozkatu zuten EAJk eta PSE-EEK, eta abstenitu egin zen, PPko zinegotzia.

Bilduko zinegotzien aldeko bozkekin egin zuen aurrera, baita, A8 autobidearen Gerediaga-lurreta tartearen doakotasuna eskatzen duen mozioa ere. ■ I.E.

ELORRIO

Presoen etxe aurretik pasatuz ibilaldia egingo dute, domekan

Herrira mugimenduak preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko ibilaldia antolatu du domekarako. Aldarrikapenerako, batez ere honako hiru egoera hauetan dauden presoak hartuko dituzte kontuan: gaixorik daudenak, parot doktrina ezarritakoak eta zigorra beteta dutenak. “Muturreko egoerak bizi dituzten preso elorriarren etxe aurretik pasatuz egingo dugu ibilaldia”, azaldu dute antolatzaileek. Paseoa 11:30ean hasiko dute plazan, eta Zenita, Lekeriketa eta San Agustinetik bueltan, plazan bertan amaituko dute. Ostean luntxa ipiniko dute.

Arratsaldean ere presoen gaia landuko dute. Izan ere, **Barrura begiratzeko leihoak** dokumentala eskainiko dute 19:30ean, Arriolan. Bost zine zuzendarik beste hainbeste presoren inguruan egindako lana da dokumentala. Zuzendarietako batek, Josu Martinezek, aurkeztuko du filmea. ■ M. O.

Barrura begiratzeko leihoak dokumentala eskainiko dute 19:30ean, Arriolan

60 udal tramite internetez egin ahal dira dagoeneko

Ana Otadui: “Online eskuratutako agiriek udaletxean ematen direnen balio bera daukate”

Udalak 60 tramite internet bidez egiteko aukera emango du hemendik aurrera www.elorrio.net webgunean. Edozein ordutan eta ilarari itxaron barik egin ahal izango dira, beraz, gestio horiek. “Arreta bulego birtuala” izango ei da, udalak prentsa oharrean azaldu duenez. Ana Otadui alkateak esan du tramiteak etxetik egin ahal

Diotenez, ONA edo Izenpe txarteletako bat, edota NAN elektronikoa beharko dira

izango direla: “Online eskuratutako agiriek udaletxean ematen direnen balio bera daukate”.

Diotenez, erabiltzaile izateko, ONA edo Izenpe txarteletako bat, edota NAN elektronikoa beharko da. Bakoitzak helbide elektronikoa propioa edukiko du.

Formazio eskaintza

Internet guztiak erabiltzen ez dutela jakinda, udalak doako ikastaro bat eratu du. Azaroaren 26an, 27an, 28an eta 29an egingo dute, eta Iturrin eman behar da izena hilaren 22a baino lehen. ■ M. O.

Euskara ardatz hartuta egingo dute argazki lehiaketa

Geurien euskara hitzarmenaren barruan, argazki lehiaketa eratu dute hainbat eragilek Elorrioren. Tartean dira, esaterako, udala eta Elorrio Argazki Taldea. Euskara hartuko dute lehiaketarako ardatz,

eta *Euskarari begiratzeko moduak* izango da gaia. Azaroaren 23ra arte aurkeztu ahal dira lanak, Iturri kultur etxean.

Nagusien ataleko irabazleak 200 euroko erosketa-txartela jasoko du, eta 18 urtera artekoetan irabazten duenak 100 eurokoa. Bigarren eta hirugarren sailkatuek ere edukiko dute saria. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, erakusketa zabalduko dute Parra tabernan, eta bertan banatuko dituzte sariak. ■ M. O.



ABADIÑO

Martitzeneko lan istripua salatu dute enpresa parean

Makinak harrapatuta hil zen langilea Talleres Unamunzaga enpresan

Trokel bat aldatzen zihardue-la makinak harrapatuta hil zen, martitzen goizean, Eibarren bizi zen 54 urteko gizonezkoa. Lebario industriaguneko Talleres

Leire Heredia (ELA): "Lan osasuneko politikak gero eta okerragora doaz"

Unamunzaga enpresan gertatu zen lan istripua.

Senide eta lagunei elkartasuna agertzeko eta lan istripua kritikatzeko, dozenaka herritar batu

ziren atzo eguerdirako ELA eta LAB sindikatuek deitu zuten kontzentrazioan. Enpresaren parean batu ziren, 12:30ean.

Ikerketa eske

Kontzentrazioaren deitzaileen ize-nean, ELAko Leire Herediak eta LABeko Ibon Zubielak egin zuten berba. Herediak gogoratu zuen dagoeneko 45 behargin hil direla lan istripuz Hego Euskal Herrian: "Lan osasuneko politikak gero eta okerragora doaz". Istripuaren ikerketa exijitu zuen, gero erantzukizunak eskatu ahal izateko. Zubielak ere ikerketa sakona egitea aldarrikatu zuen: "Langileek diotena da, makina horrek ez zeukala neurri prebentiborik". Bere ustez, lan istripu guztiak ekidin ahal dira, eta martitzenean jazotakoa ere bai. Horretarako, lan baldintzak aldatzea exijitu zuen, oinarrian preka-

ko langilearen senide eta hurbilekoei elkartasun eta babes osoa adierazteko".

Udalaren adierazpena

Abadiñoko Udalak oharra zabaldu du, Talleres Unamunzaga enpresan gertaturiko heriotzagaitzetsi, eta hildako langilearen familia, lagun eta lankideei elkartasuna adierazteko. "Baldintza haue-tan gertatzen den azken heriotza izatea" espero duela ere jaso du Abadiñoko Udalak ohar horretan. Bestetik, instituzio publiko zein pribatu guztiei deia luzatu die Abadiñoko Udalak, "lan istripuen prebentzioan eta segurtasun baldintzetan behar besteko pauso eraginkorrek emon eta hau errepika ez dadin". Martitzeneko istripua gaitzesteko antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko deia ere luzatu die, udalak, herritarrei.

Ibon Zubielak (LAB): "Langileek diotena da, makina horrek ez zeukala neurri prebentiborik"

rietatea dagoela esanez: "Istripuen eta gaixotasunen atzean lan baldintzak daude".

Atzokoa ez da izan protesta bakarra. Eguazten iluntzean ere lan istripua salatzen elkarretaratzea egin zuten. Traña-Matienako jubilatuen etxearen parean elkartu ziren, Abadiñoko Ezker Abertzaleak deitu zuen kontzentrazioan. "Istripu larri hori salatu eta hilda-

Hogei urtetik gora lanean

Abadiñoko Talleres Unamunzaga enpresan estanzazio eta trokelgintza lanak egiten dituzte, hogei langilek. Lan istripuan hil den gizonezkoa Arriandikoa (Iurreta) zen, gauegun, Eibarren bizi zen arren. Hogei urtetik gora zeraman bertan lanean, lankideek esan dute-nez. ■ I.E. / M.O.

"Baldintza haue-tan gertatzen den azken heriotza izatea" espero du Abadiñoko Udalak



Unamunzaga enpresan hartutako irudia, gorpua ateratzeko unean.

Gabonak Parisen

ABENDUAK

27 28 29 30 31 1

550 €

27 Irteera
Autobusa Durangaldetik
Amboise
- Amboiseko gaztelua
- Gaua gosariarekin

28 Parisera heldu
Hotelera heldu
Bisita gidatua, arratsaldean

29 Irteera aukeran
Versalleseko jauregira bisita

30 Irteera aukeran
- Senatik bidaia
- Eiffel dorrea

31 Irteera aukeran
Disneyra egunez

1 Itzulera
Gosaldu eta herrira bueltan itzuli

PREZIOAN BARNE:
- Autobusa
- Gaua eta gosaria Amboisen
- Amboiseko gaztelura bisita (Leonardo da Vinciren hilobia)
- Parisen 4 gau eta gosaria 3 izarretako hotelean
- City tourra edo bisita gidatua
- Oinarrizko asistentzia aseguru

www.bagoaz.com

20 pertsonako taldea sortzea beharrezkoa da

Apuntatzeko azken eguna: **azaroak 19**

* Logela bikoitzean oinarritutako prezioa pertsonako. Indibidualetarako edo umeentzako aukerak kontsultatu.

Trañabarren 11, behea • Matiena (Abadiño) • Tel.: 94 465 75 77 • Mug.: 639 346 506 • info@bagoaz.com

ABADIÑO

Inyektametalen lan erregulazio eskaria "bidegabe" jo dute

Enpresaren enplegu erregulazio eskaria "bidegabea" dela dio epaitegiak

Bilboko Lan Arloko epaitegiak "bidegabe" jo du Traña-Matienako CIE Inyektametal enpresak apirilean eskatu zuen eta 246 langileri era-

Enpresak kontsulta epean "fede txarrez" jokatu zuela dio, esaterako, sententziak

gingoliekeen enplegu erregulazio espediente eskaria. ELA sindikatuak enpresaren eskari horri aurkezturiko helegitea onartu egin du epaileak.



Enplegu erregulazio espediente abiatzea justifikatzen duen arrazoirik ez du ikusten epaileak.

Besteak beste, enpresak kontsulta epean "fede txarrez" jokatu zuela esaten du sententziak: Lan Agintaritzak arduradunei eskutatako dokumentazioa epez kanpo eman zuela enpresaren zuzendaritzak. Enpresak akordio batera heltzeko asmorik ez duela erakutsi ere esaten du.

Enpresak eskatu zuen enplegu erregulazio espediente abiatzea justifikatzen duen arrazoirik ez dagoela dio, beraz, epaiak: ekoizpenari begiratuta ez dagoela espediente horri bide emateko beharrik, eta enpresaren galerak iaztik hona gutxitu egin direla dio epailearen idatziak.

ELA sindikatuak enpresaren eskariari aurkezturiko helegitea onartu du epaileak

Sententzia hori errekurritu egingo du, bestalde, enpresaren zuzendaritzak

Bilboko Lan Epaitegiaren sententzia horri errekurtsio aurkeztuko diola jakinarazi du, bestalde, CIE Inyektametal enpresaren zuzendaritzak. ■ I.Esteban

Kontsumitzeko beste era bat, domekako merkatu txikian

Merkatu txikia antolatu du, herri-tar talde batek, domekarako. Berrogehi lagunek eman dute azokan erakusmahai ipintzeko izena. Askotariko gauzak ipiniko dituzte bisitarien eskura: arropa, cd eta biniloak, bigarren eskuko tresnak, bizikletak, antzinako gauzak, etab. Salerosteko eta trukatzeko gunea izateko helburuagaz antolatu dute ekimena. Durangaldeko eta Abadiñoko lagunek ipinitakoak izango dira erakusmahai gehienak.

"Erabili barik dauzkagun hainbat gauza merke edo trukean ematen" ikas dezagun proposatu dute antolatzaileek. Ganbaran eta armairuetan gordeta dauzkan gauzak beste norbaitentzat baliagarri izan daitezkeela uste duen edozeinek parte har dezake azokan honetan.

Eskuz landutako gauzen postuak ere ipiniko dituzte, Ferialeku plazan: larruagaz egindako gauzak eta xaboiak ipiniko dituzte, esaterako, salgai. ■ I.E.

Mobilizazioei ekin diete Rothenberger enpresan

Abadiñoko Rothenberger enpresako hainbat beharginek elkarretaratzeko egin dituzte asteon enpresak proposatzen dituen murrizketen kontra. ELA eta LAB sindikatuak azaldu dutenez, enpresak soldatak %5 jaistea eta urtean 137 ordu gehiago sartzeko eskatzen du.

Natale Landa LAB sindikatuak ordezkaritza dienez, enpresak 2011n irabaziak izan zituen: "Dokumentazioa eskatu diogu enpresari hartu gura dituen neurriak arrazoitzeko, baina ez digu informazio guztia eman".

Metal arloko multinazional honek bere kudeaketa sistema aldatu berri du. Orain, erabakiak beste leku baten hartzen dituzte, la kritikak ELA eta LAB sindikatuak. ELAko Iker Alustizak gogoratu duenez, azken lan erreformak enpresari baliabideak ematen dizkio lan baldintzak aldatu ahal izateko: "Ez gaude enpresak proposatutako neurri hauek onartzeko prest".

CCOO negoziatioaren alde Enpresa komitean ordezkaritza duen CCOO sindikatuak, berriz, Rothenbergerreko zuzendaritzagaz negoziatzearen alde agertu da. Langileen asanbladara eroan gura dute proposamena, eta urtean 50 ordu gehiago lan egitea eta soldatak bere horretan uztea jasotzen du. Trukean, enpresari hitzarmena eskatuko liokete, bai eta kaleratze objektiboriketa etendura espedienterik ez ezartzea ere. ■ J.G.

DURANGO

Parte-hartzeagaz landu gura dute plan orokorra

Bildu, PSE-EE eta Aralarren proposamena lantzeko ez ohiko batzarra egingo dute azaroaren 26an

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra herritarren partaidetzagaz egin dadin, indarrak batu dituzte Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek. Proposamena lantzeko ez ohiko udalbatzarra egingo dute azaroaren 26an. Hiru alderdiek eskatu dute

batzarra egitea, eta aurreratu dute euren proposamena babesteko dutela. "Uste dugu beharrezkoa dela Durangoko herritarren iritzia kontuan izatea, jakite alderaz zer nolako herria gura duten hurrengo urteei begira. Gai garran-

tzitsuak daude jokoan: mugikortasuna, etxebizitza, oinarriko zerbitzuak, kirol eta kultur azpiegiturak...". Esan dute EAJk parte-hartzerik barik egin gura duela plana. Beraz, EAJren gobernu taldeari aurrea hartzeko batu dira hiru alderdiak.

Gainera, beste proposamen bat ere eroango dute batzar berezira: Dendak Bai merkatariaren elkartegaz hitzarmena sinatzea. Diote udala gelditu dagoela arloan, eta antzeko ekimenak beharrezko direla. "Are gehiago gaur egun bizi dugun egoeran". ■ M. O.

Korleone taldeak irabazi du Izarren Distira

Joan zen zapatuan Plateruena kafe antzokian jokatu zuten artista gazteen sariketako finala



Finaleko parte-hartzaileak, Plateruenean.

Elorriarrak izan dira nagusi Amankomunazgoak antolatzen duen Izarren Distira lehiaketan. Joan zen zapatuan Plateruena kafe antzokian jokatu zuten artista gazteen sariketako finala, eta Elorrioko Korleone taldea izan zen garaila. Lau gaztek osatu zuten taldea, eta antzerkia eta musika nahastuz aurkeztu zuten ikuskizuna.

Izarren Distiraren helburua, gazteei euskarazko espazio berriak eskaintzea da

Antolatzaileek esan dute txalo pilo jaso zutela: "Zuzeneko abes-ietekin musikal oso dibertigarria eskani zuten". Korleoneko Ixone, June, Xabier eta Juan Pabloc Port Aventura saria irabazi dute.

Izarren Distiraren helburua, gazteei euskarazko espazio berriak eskaintzea da. Aurten hirugarren edizioa bete du ekimenak eta tailerrak gehitu dizkiote. ■ M. O.

Poliziaren biktimak ere oroitzea eskatu du EH Bilduk


Oroimen egunagaz bat egin zuten domekan Durangon, terrorismoaren biktimak gogoratzen dituen monolitoaren aurrean. Udalak sustatuta, lore eskaintza eta ekitaldia egin zituzten Ezkurdikogune horretan. EH Bildu osatzen duten alderdi bik, Bilduk eta Aralarrek, hausnarketa plazara dute. Euren ustez, ezin da bakarrik ETA, GAL eta beste talde armatuen biolentzia aintzat hartu: "Kontuan izan behar dira poliziaren biolentzia pairatu izan duten biktimak". Adierazi dutenez, beharrezko ikusten dute biolentzia gogoratzea. "Baina oroimen hori ezin daiteke baztertzailea izan, partziala izango litzatekeelako". Gainera, euren ustez, "biolentzia politikoa ez errearen isla" izango litzateke oroimen hori.

Bilduk eta Aralarrek monolito hori biktima guztien oroimenekoa izan dadila eskatu diete gobernu taldeari eta gainerako alderdiei. ■ M. O.

"Oroimen hori ezin daiteke baztertzailea izan, partziala izango litzatekeelako"

Monolito hori biktima guztien oroimenekoa izan dadila eskatu dute

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



ME STON bast erretxea

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

ATXONDO

Saneamendu eta garbiketa arloko kezkak azaldu dituzte Arrazolan

Joan zen zapatuan auzo batzarretako lehenengoa egin zuten Arrazolan. Guztira 27 arrazolatarrak batu ziren udalak egindako deialdian. "Ez genuen hainbeste jende batzerik espero eta oso pozik gaude", adierazi du Rosa Elizburu alkateak.

Batzarrean bertatik bertara ezagutu zituzten arrazolatarrak kezkak. Saneamenduko hoditeria nagusitik urrun daudenez, bertara loturarik ez duten baserrietako bizilagunek lotura horiek egiteko premia adierazi zuten. Sare orokorrera noiz batu zitezkeen eta bitartean arazoari zer irtenbide eman zitekeen galdetu zuten. Garbiketaren inguruko premia batzuk ere azaldu zituzten.

Bigarren batzarra Axpen izango da bihar, 10:00etan. Apatako hiru batzarrak datorren martitzen, eguazten eta eguenean egingo dituzte, 18:30ean, eskola berrian. Elizburu alkatearen esanetan, batzarrak amaitu ostean bigarren batzar erronda bat egingo dute, jasotako premiei zer erantzun eman diezaieketen jakinarazi eta lehentasunak markatzeko. ■ J. D.

IZURTZA

Fosroc enpresan 21 kaleratze aurreikusitu ditu zuzendaritzak

Komiteak dio kaleratze traumatikorik ez duela onartuko; izatekotan, "adostuak eta boluntarioak"

Fosroc enpresako zuzendaritza 21 lagunentzako kaleratze-espeditentea prestatzen ari da. Baita etendura-espeditente bat ere, langileen soldatak % 12,5 jaiste proposatuz. Halaxe jakinarazi zieten enpresako komiteari eguazteneko batzarrean. Atzerapenik ezean, espeditente biak azaroaren 22an aurkeztuko dituzte ofizialki. Ondoren, kontsulta epea hasiko da hilabetez.

Orain arte, enplegu erregulaziorako lau espeditente izan dituzte Fosroc enpresan, baina denak etendura-espeditenteak izan dira. Datorren astean aurkeztuko dute lehenengoz kaleratzeak aurreikusten dituen espeditentea.

Fosrocek 62 langile ditu gaur egun. Enpresan hormigoitari nahasten zaizkion produktu kimikoak ekoizten dituzte. "Eraikuntzan hormigoia erabilerak asko jaitsi denez, horrek zuzenean era-

giten dio enpresari, errealitateari ezin diogu lepoa eman", onartu du David Palacios enpresa komiteko ordezkariak. Baina argi dute kaleratze traumatikorik ez dutela "inondik inora" onartuko: "Langileak horretarako prest badaude, adostutako kaleratze boluntarioen gainean negoziatzeko prest gaude, baina ez behartutako kaleratzeen inguruan".

Soldatei dagokienez, enpresako komitearen ustez, "ez da arazorik konponduko soldatak jaitsita; guztiz kontra gaude, egin behar dena lan karga gehitzea da".

Enpresako zuzendaritza negoziatzeko prest agertu dela ere adierazi dute. ■ J. Derteano

Enpresa komitea: "Ez da ezer konponduko soldatak jaitsita; guztiz kontra gaude"



Gaur egun, 62 langile ditu Izurtzako Fosroc enpresak.

MAÑARIA

Guraso taldeak sustatuta, Olentzeroren etxera bisita

Domekan Mungia joango dira 35 lagun inguru Olentzeroren etxea bisitatzera. Izenaduba basoa legez ezagutzen da parke hori, eta umeez ikazkin ezagunaren mitologian murgildu ahal izango dute. Goizeko 09:00etan irtengo dute Mañaritik, eta bisita 10:00etan egingo dute. Herrian sortu berri den gura-

09:00etan irtengo dute; herrian sortu berri den guraso taldeak eratu du ekimena

Esaterako, auzo eta baserriak ezagutzea pentsatu dute hurrengo ekimenetarako

so taldeak eratu du ekimena. Iraixe Gazteluiturri gurasoak kontatu du zelan hasi ziren aitak eta amak batzen. Errola aztertzean ume ugari zeudela ikusi ei zuen udalak, eta batzar informatibo batean gurasoei laguntzeko prest zeudela esan zuten. Horren harira, talde txiki bat batzen hasi zen.

Umek lotura izatea gura dute. Lotura, euren artean eta herriagaz. Gazteluiturri esan duenez, esaterako, auzo eta baserriak ezagutzea, edota ogia zelan egiten den ikustea pentsatu dute hurrengo ekimenetarako. ■ M. O.

BERRIZ

Zerga eta tasa batzuk % 2,5 igoko dituzte

Batzuk igotzea eta besteak izoztea erabaki dute udalbatzan, "larregizko kargarik ez egoteko"

Zergei dagokienez, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga eta Jarduera Ekonomikoaren gaineko igotzeko dituzte. Ibilgailuen eta obra eta instalakuntzen zergak, berriz, izoztu egingo dituzte. Tasek arloan, % 2,5 igoko dituzte, besteak beste, uraren, zaborraren, kirol zerbitzuen, eta ezkontza zibilaren tasak. Saneamenduaren eta hiri-lizentziaren tasek, esaterako, bere horretan jarraituko dute.

Zaborren gaineko zergan Berriz eskualdeko merkeena dela adierazi du alkateak

Boluntariotza landuko dute adinekoen kultur jardunaldietan

Datorren astean, parte-hartzeari eta zahartzeko aktiboari buruzko hainbat ekitaldi edukiko dituzte adinekoentzako kultur jardunaldian. Tartean, Basauriko janari bankua eta Gurutze Gorria eza-

Tasetan kontzeptu berriak ere badaude: kanposantuko hezurtegienak eta errautsak gordetzeko lekuenak. Hezurtegien alokairua 500 eurokoa izango da 99 urterako, eta errautsena 300 eurokoa epe bererako.

Udalbatzarrak aho batez onartu ditu ordenantza fiskalen aldaketak. Orland Isoird alkateak azaldu du, osotasunean barik, zatika igoko direla, "larregizko kargarik ez egoteko". Adierazi duenez, Durangaldeko beste herrietako ordenantzak kontuan eduki dituzte. Adibidez, Berrizko zaborren zerga eskualdeko baxuena dela esan du Isoirdek, eta horregatik erabaki dutela igotzea. ■ A. U.

gutzeko irteera egingo dute eguenean, 09:45ean irtenda. Izan ere, aste berezi horretan boluntariotza landuko dute.

Eguaztenean, zahartzeko aktiboak bultzatzen dabiren Hartu-emanak elkarterko Ismael Arnaizek hitzaldia emango du Jubilatuen Etxean, 18:00etan. Barikuan Galdamesko antzinako autoen museoa bisitatu dute. Zapatuan *¿Algun voluntario? ¿Alguna voluntaria?* antzezlan izango da kultur etxean. ■ A. U.

GARAI

Sukaldaritza ikastaroan 21 lagunek parte hartuko dute

Trumoitte kultur elkarteak sukaldaritza ikastaroa antolatu du Garain, eta 21 lagunek eman dute izena. Kopurua ikusita, talde bi sortzea erabaki dute antolatzaileek. Lehenengo taldea astelehen

honetan bertan hasiko da ikastaroan, eta eguenera arte egingo dituzte praktikak. Abenduko lehenengo astean ere jardungo dute. Bigarren taldeak azaroaren 26an egingo du lehenengo saioa. Aste horretan eta abenduko bigarrenean jasoko dituzte eskolak.

Juantxu Larruzeak emango du ikastaroa. Antolatzaileen esanetan, Gabonetako platerak zelan egin erakutsiko du batez ere, baina partaideen eskariak ere kontuan hartuko ei ditu. ■ M. O.

MALLABIA

Zarzuela baten habanera abestuko dute abesbatzek

Trikitulari eskolako musikariek Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin joko dute, azaroaren 24an

Urtero bezala, Santa Zezilia Eguna ospatzeko Mendibil eta Jasokunde Abesbatzek kontzertua eskainiko dute azaroaren 24an, arratsaldeko 20:00etan, elizan. Trikitilari Eskolako gazteek osatutako hiru soinu taldek abesti bana eskainiko dute. Bi koruek, bakoitzak bere aldetik abestu ostean, elkarrekin prestatutako

kantu bat abestuko dute. Pianista bat bidelagun dutela, zarzuela baten habanera bat lehenengoz abestuko dute jendaurrean. Antolatzaileek diotenez kontzertuan 50 lagun inguruk parte hartuko dute.

Ostean, Orrattio euskera elkarteak Gaztainerreko gaztaina erreak eta ardoa eskainiko dituzte elizpean.

Asto probetan izena ematea Abenduaren 6, 7 eta 8ko asto probetan parte hartu gura duenak zapatuan, azaroak 17, dauka eguna, gaueko 21:00etan, Goizeder Jatetxean, Areitioan. ■ J.G.

Antolatzaileek diotenez kontzertuan 50 lagun inguruk parte hartuko dute



Durungaldean labor

Aste kulturala antolatu du Berriotxo nagusien elkarteak

Elorrioko Berriotxo jubilatuen elkarteak aste kulturala antolatu du datorren asterako. Besteak beste, martitzenean taldeko irteeren argazki erakusketan ipiniko dute, eta eguaztenean karta txapelketa egingo dute; barikuan banatuko dituzte sariak, eta eguerdi ostean, edari bat hartzera gonbidatuko dituzte elkarteko bazkideak. Eguenean, gainera, txokolatada edukiko dute 17:00etan.

Salerosketak euskaraz egiteagatik, lehen tableta

Ayuka Design arropa dendan banatu du ITG Taldeak "Salerosketak be, euskeraz" egitasmo-ko lehenengo tablet elektronikoa. Saria 32.851 zenbakiak irabazi du. Lehenengo honen ostean, beste bost zozketa egingo dituzte Durangon, salerosketak euskaraz egiten dituzten bezeroen artean. Hurrengo zozketa urtarrilaren 1ean izango da.



Yoga Eguna Al-gaz elkarlanean

Azaroaren 22an Yoga Eguna antolatu du Dharanandana zentroak, Amnistia Internacionalegatz elkarlanean. Yoga praktikatzegatik emandako borondatea emakumeen eskubideen aldeko Alren kanpainara bideratuko da. Eskolak 10:00etatik 11:30era eta 19:30etik 21:00etara izango dira.

OTXANDIO

Lanpostuak sortzea hobariekin lagunduko dute arau fiskaletan

Eraikuntzen, Azpiegituren eta Obren gaineko zergan %75eko laguntza jasoko dute

Pasa den eguneko udalbatzarrean aurtengo ordenantza fiskalak onartu zituzten aho batez. Oro har, KPIaren arabera %3,4ko igoera orokorra onartu dute. Salbuespenen artean Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga dago: bere horretan utzi dute.

Eraikuntzen, Azpiegituren eta Obren Gaineko Zerga, berriz, moldatu egin dute. Orain arte, arlo horretako zergek ehuneko desberdinak zituzten, eta arazoak sortzen ziren mota bateko edo besteko obrak ziren erabakitzerako orduan. Beraz, prozedura sinplifikatu eta errazteko, honako erabaki hau hartu dute: mota horretako zerga guztiak bateratu eta ehuneko bera ezarriko diete: %5. Ondoren, obra kon-

kreto batzuk hobari bidez lagunduko dituzte zergetan.

Horrela, lanpostu berriak sortzea ekarriko duten obrak hobari bidez laguntzea erabaki du udalak. Bide horretatik, egin beharreko obren ostean lanpostu berri egonkorak sortzen dituztenek %75eko laguntza hartuko dute zerga horretan. Era berean, energia iturri jasagarriak aintzat hartzen dituzten obrei %95era arteko laguntza emango diete. Eraikuntzetako oztopo arkitektonikoak kentzea kontuan hartzen duten obrek ere %75eko laguntza jasoko dute. Azkenik, ezintasun baten ondorioz, etxebizitzan obrak egin behar dituztenak %95era arte lagunduko ditu udalak. ■ J.D.

Herri ginkanako lehen asteburuan 55 lagunek parte hartu dute

Udaleko euskara sailak IV. Herri Ginkana abiatu du. Pasa den barikutik astelehenera izan zen lehen jardunaldia. Hurrengo biak datozen asteburu bietan izango dira, barikutik astelehenera.

Herriko bederatzi tabernatan hizkuntzen eta Otxandioren inguruko bina galdera daude. Gura duenak galderak erantzun eta tabernetan dagoen xaxa batean sar ditzake. Lehen jardunaldian 55 lagunek parte hartu dute, eta Andoni Axpek lortu du punturik gehien: 13. Hilaren 30ean, Mairondo eskolako gimnasioan izango den bertso afarian banatuko dituzte sariak. Irabazleak herriko jatetxe batean lau lagunentzako afaria irabaziko du; bigarrenak, 50 euroko txartela, herriko dendetan gastatzeko. Parte-hartzaile guztien artean bost sari banatuko dituzte. ■ J.D.



Herriko bederatzi tabernatan erantzun daitezke galderak.

IURRETA

Hobari gehiago ikastaro eta udako tailerretan

Ordenantza fiskaletan %2,5eko igoera onartu dute, PSE-EE eta Bilduren zuzenketak jasota

Zergak eta tasak %2,5 igoko dira 2013an, eta, kultur ikastaro eta udako tailerretan hobariak gehituko dira, kide askoko familientzat. Bilduren eta PSE-EEren zuzenkete-

kin jasoko dituzten horiek EAJK, aho batez onartutako ordenantza fiskaletan.

Ikastaro eta udako tailerretan, kide askoko familiek %50eko hobaria jasoko dute 2. kideagatik; %75

hurrengo kide bakoitzeko. Udalak matrikularen %60 ordainduko du. Hala ere, prezio murriztua izango dute Iurretako langabetu eta pentsiodunek, 1.300 eurotik beherako diru-sarrera frogatu ostean.

Bilduk proposatuta, hobari bi egongo dira zabor eta estolderiagatik tasan ere: %75 edo %50, diru sarreraren arabera. Iñaki Totorikaguena alkateak dio udal aurrekontua orekatzea izan dutela helburu. ■ A. B.

Segurtasuna indartuko dute Garaizarko errepedean

Oinezkoentzako segurtasun neurriak hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak Garaizarko errepedean, A8 autobidearen gainetik doan tartean. Aho batez onartu dute PSE-EEren proposamena Bizkai-

ko Batzar Nagusietan. Herri Lan eta Garraio Sailak egingo ditu.

Metro biko espaloi bi jartzeko konpromisoa hartu zuen Aldundiak duela lau urte, sozialisten berbetan: "Baina, oinezko gehienentzat pasatzea ia ezinezkoa egiten zuten beste gabezia batzuk egon arren, ezzen ezeregin. Txapuza bat izan zen". Orain onartu den proposamena tramitera eroatean ere egin ziren aldaketa batzuk, esan dutenez: "Beste txapuza bat, segurtasun arazo larriak sortuz" ■ A. B.

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

m o m o t x o
t a b e r n a

plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

katerin ardoak
iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltzan.com

Nahi duzu jendaurrean berba egiten ikasi edo hobetu?

Ibaizabal ikastolan, Manu Marañon, formatzailea eta coach-a.

	AZAROA	ABENDUA	ORDUTEGIA
1. taldea: euskaraz	20, 27	4, 11, 18	17:30-21:30
2. taldea: euskaraz	23, 30	7, 14, 21	17:30-21:30
3. taldea: gazteleraz	19, 26	3, 10, 17	17:30-21:30
4. taldea: gazt.	17(edo 24), 24	1, 15(edo 22)	09:00-14:00

175€

komunikarte
Izan egin esan

Informazio gehiago: gorospe.t@gmail.com
685 728 042 - www.komunikarte.org

BERBAZ >

“Kooperazio arloan ikerketa zelako garrantzitsua den ikusi dut”

Pakistanen Talis herrian egondako uholdeen arrazoiak ikertu eta arriskuak prebenitzeko lanean dabil Aritz Bizkarra



Aritz Bizkarra •

- Topografoa da
- 27 urte ditu eta durangarra da

Lur antolamenduaren inguruko galderetan, adibidez, gizonak eskuratu ezin ziren gauzak eskatzen zituzten, eta emakumezkoek gauza praktikoak: ospitale bat, medikua bertan egotea, arropak garbitzeko leku bat, emakumeak elkartzeko leku bat ere bai... Umeekin lotutako gauzak, higiena, osasuna... Gauza horiek gehiago hartzen zituzten kontuan.

“Arriskuak detektatzea garrantzitsua da aurretiaz zer egin daitekeen ikusteko”

Zer puntutan dago proiektua? Ikerketa proiektua garatzen gabiltza, eta aurrera doa. Ziurrenik berriro eskatuko dugu diru-laguntza; bailara guztiko herrietan arrisku mapa egin gura genuke. Dokumentu bat sortu gura dugu, zer edo zer eraikitze-ara doazenean eurek edukitzeko, arrisku gutxien zer ingurutan dagoen ikusteko. Hango unibertitateagaz hartu-emona hasi dugu, eurekin koordinatu eta handik edo hemendik proiektuari jarraipena egiteko. Hasieran hondamendiaren ostean etxeak eraikitze-ara joan ginen, eta ondo, baina kooperazioan ikerketa zer garrantzitsua den ikusi dut. Badakigu erreka berriro gainezka egin dezakeela baina ez dakigu noiz eta zergatik izango den. Arriskuak detektatzea garrantzitsua da aurretiaz zer edo zer egin daitekeen ikusteko. Adibidez, errekan gora joaten diren artzainek, laku bat eratu dela ikusiz gero, herrira abisatzeko modua eduki beharko lukete. ■ A.Ugalde

Denbora tarte txikian uholdeek birritan birritu dute Pakistanen Talis herria. Aritz Bizkarra topografoa boluntario ibili da bertan, zortzimilako mendien magalean. Felix Baltistan fundazioaren bidez izan du horretarako aukera. Ekainean joan zen bertara azkeneko, eta bertako arriskuak detektatzeko ikerketa batean parte hartzen dabil orain. Iurretako liburutegiak antolatutako Munduko Paisaiak egitarauaren barruan eman du Talisko proiektuen berri.

Zelan hasi zen zure boluntario lana Talisen?

2010eko udan Pakistan osoa kaltetu zuten euriteek, montzoi fenomenoagatik. Felix Baltistan fundazioak lan egiten duen bailaran Talis herria oso kaltetuta gelditu zen, eta larrialdi proiektua martxan jarri zen, herria berreraikitzeke. Berrogei etxebizitza inguru apurtu ziren. Topografoa behar zuten, eta ni heldu nintzen. Gero, 2011n, uholdeak egon ziren berriro Talisen. Herriaren goialdean hiru glaziar

daude, eta oso egun onak egoten direnean urtu egiten dira. Lurra oso birrinduta dagoenez, urak herri osoa aurrean eroan zuen. EHUko kooperazio bulegora diru-laguntza eskatu eta analisi hidrogeologiko bat egiten hasi ginen.

Glaziarra dela-eta, arrisku handia daukate herrian, orduan?

Iazkoa beste noiz edo noiz gertatuko zen, baina herrian inork ez du ezagutu horrelako hondamendirik. Ikerkuntza hasi zen zergatik gertatu zen aztertzeke, eta herriko leku seguruak zeintzuk diren ikusteko. Dauzkagun datuen arabera beroagaz glaziarra urtu, eta laku bat sortu zen. Lakuak gainezka egin zuen eta ur kantitate handi bat etorri zen errekan behera.

Iurretako berbaldian ingeneratza humanoa eta generoari buruz berba egin duzu.

Bai, giza ingeniari-za ingeniari-za beste helburu batzuekin egitea da. Hemen egiten diren lanak eraikuntzara eta sortzera zuzenduta daude, eta esango nuke helburuak beti direla ekonomikoak. Giza ingeniari-za beste batzuk dira helburuak.

Herritarrekin hartu-emonuzena izan duzue...

Bai, datuen bilketa egiterakoan eurengandik ere jaso dugu informazioa, zelan edo halan beti egon behar da inplikazio bat. Gu proiektu honekin hasi ginen herritarrek eskatu zutelako. Bailara guztian bilerak egin ditugu. 2011n, etxebizitzetan gaian, etxeak berreraikitzeaz gainera herria berrantolatu behar zen apur bat, eta orduan emakumeekin eta

Prozesu horietan zelakoa izan da emakumeen papera?

Hasieran bilerak emakumeekin eta gizonzkoekin batera egitea pentsatu genuen, baina hobeto pentsatu eta bananduta egitea erabaki genuen. Oso zaila da emakumeak eta gizonzkoak areto berean elkartzeko. Emakumeen papera han, lan eta lan egitea eta umeak edukitzea da, gauzak erabakitzeke orduan ez daukate ahotsik. Proiektuan beti

“Emakumezkoen bilerak emankorragoak izan dira. Gauza praktikoak eskatzen zituzten; ospitalea, eurak elkartzeko leku bat...”

gizonekin batzarrak egin genituen, bananduta. Galdeketa bat egin genien eurek ikusten zituzten premien berri izateke. Aurten gauza bera egin dugu, baina arriskuarekin lotuta. Zortzimilako mendien magalean daude herri horiek, eurek sortu dituzte herriak ahal izan duten lekuan, eta arrisku piloa daude. Galdetu diegu ea antzeko zer edo zer pasatu den lehenago, ea non pentsatzen duten arriskuak egon direla...

hartu dugu kontuan emakumea. Egia esan, areto batean elkartu eta gizonzkoekin ez dagoenean, hasieran kostatu arren, gauza ugari esaten zituzten gero, beti oso zuhur. Esango nuke emakumezkoen bilerak emankorragoak izan direla gizonzkoekin baino. Gizonak gehiago arduratzen ziren euren landa zatiaz, euren propietateak zaintzeaz... Eta emakumeek askoz ere informazio gehiago ematen zuten.



aisia

www.aisiahoteles.com
902 820 997

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g
Tel.: 94 684 26 55

lekeitio@aisiahoteles.com

Aisia Deba Hotela

Markiegi kalea, 6
Tel.: 943 60 80 52

deba@aisiahoteles.com

Ezteguen kontzeptua eraberritu eta berrasmatu du Aisia Hoteles-ek

Aisia Deba eta Aisia Lekeitioko zuzendaritza berriek bertako produktuen aldeko postura egin dute

2013. urtea latza izango ei da. Zelan egingo dio aurre Aisia Hotelese?

Egoera ekonomiko kaskarra izan arren, Aisia Hotelesekoak baikor daude, aurreko urteetan baino bankete gehiago ematen baitute gaur egun. Alde batetik, oso pozik daude ezteguen arloan aurten izandako emaitzekin, eta 2013rako aurreikuspena ere ona da, Mireya Azpiazuk, Aisia Deba

jatetxeko arduradunak, adierazi duenez. Horren ildotik, cocktailen aurkezpena berriztatzen ari dira, eta ezteguetako menuak ere aldatu egin dituzte, bertako produktu ugari erantsita.

Bezeroek proposamen gastronomiko berria gustura hartu dutela adierazi du Edurnek, Aisia Lekeitioko (Enperatriz Zita) sukaldaritza zuzendari berriak. Datorren urteko aurreikuspenari

dagokionez, Edurne ere baikor agertu da. Izan ere, beste arlo batzuk lantzen ari dira, adibidez kafetegiko neguko karta; gainera, harkaipatu duenez, herritarrengan harrera ezin hobea izan du.

Zerk bereizten du Aisia Hoteles gainerakoetatik?

Aisia Hotelese sei hotel ditu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Kantabrian. Hotel horietan, txoko eta bazter guztiak dira gozatzeko eta erlaxatzeko. Bereizgarrien artean, aipatzekoak dira, sukaldaritza kreatiboa eta kalitatezkoa, ingurumenarekiko errespetua, eta hidroterapia osasunerako eta edertasunerako formulatutako jotzea.

Gainera, hoteletako espazioek berezko izaera dute, zein baino zein leku pribilegiatuagoan baitago. Diseinu modernoak dute, gaur egungoak. Horrez gain, zerbitzu bikaina eskaintzen dute, eta langileen arreta ezin hobea da.

Hain zuzen, horixe da giltzarria: langileak. Hala Aisia Deban nola Aisia Lekeition aldatu egin dute zuzendaritza, eta zonaldeko langileak hartu dituzte. Hartara, Deban, Mireya Azpiazuk zuzendari eta Xagit Andoneguik sukaldeko buru jardun dute. Aisia Lekeition, berriz, Edurne Hortak eta Javier Ugartek bikote paregabea osatzen dute.

Aisia Deba eta Lekeitioko jatetxeetako arduradunek beren arrakastaren giltzarria erakutsi digute:

Hasteko, hotela hondartza parean dago, eta jatetxeko ikuspegia zoragarria da. Bertako terraza bikaina da ospakizuna bera egiteko, bai eta cocktail linea berriko mokaduak dastatzeko ere. Banketeari dagokionez, aipatzeko da sukaldaritzak kalitate bikaina duela, eta inguruko lehengaiak erabiltzen direla, esaterako Ondarroako arrain freskoa. Ezin dugu ahaztu nork bere banketea pertsonalizatzeko aukera ere badagoela. Hala, Aisia Hoteles leku paregabea da mota guztietako ospakizunak egiteko.




BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Nork jasoko du aurten Azokak emandako Argizaiola saria?

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Tristura

Tristura da orain nire barnean sentitzen dudana. Tristura konpromiso bat hartu eta lanean ilusio osoz zabilzanean, beste batzuek zure lana zapaldu eta zaborrez bete nahi dutelako.

Gaur oso zoriontsu jaiki naiz. Nire lagunei txiste bat bidali diet mezu bidez, eta egun zoragarria opa izan diet. Oso pozik, sinesten dudan ekimen bat martxan jarri dugulako. Gaur aurrekontu parte-hartzaileak lantzeko lehengo batzarra izango dugu, eta munduko ilusio guztiarekin abian jarri dugu.

Zeuen buruari galdetuko diozue, ea zer pasatu den tristura hau sentitzeko. Bada, udaletxeko propaganda irakurri dudala. Bertan, PNVk guri zikinkeria bota baino ez du nahi izan, herritar guztien diruarekin. Lotsagarria iruditzen zait Elorrioko biztanleen diruarekin besteei min eman nahi izatea.

Herritarrekin jolasean gabiltzala, alderdikeriagatik eta norgehiagokeriagatik gabiltzala, eta metodologia-rik ez dugula aditzera eman nahi, besteak beste.

Nahikoa da! Bilduk aurrekontu parte-hartzaileak martxan jarri dituen momentuan PNVren aldetik denetik entzun behar izan dugu: hori ez dela prozesu parte-hartzailea, ez dugula gaitasunik horrelako gauza bat egiteko, ez dutela zertan guri itxaron ekimen hau bukatu arte aurrekontuak onartzeko.....

Ilusioz hasi dugun ekimena da, ilusio osoz egin eta bukatuko dugu. Barkamena eskatu nahi diet nire taldekideei, hau beraiekin kontsultatu barik idatzi dudalako, baina barnean nuen hau guztia atera behar nuela sentitu dut.

Elorriokoa naiz, herri hau eta bere herritarrak maite ditut, eta horrelakoek, tristura bai, baina ez dute lan egiteko dudana ilusio eta gogoagaz amaituko.

Txistea hurrengo batean kontatuko dizuet. Besarkada erraldoia,

Idoia Buruaga Barcena Bilduko zinegotzia (Elorrio)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta astekaria@anboto.org Izen-abizenak, telefona, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bidali behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Norentzako ari da gobernatzan EAJ?

Askotan politikagintza ulertzeko zailtasunak omen ditugu. Merezi du, beraz, politikagintzaren definizioa sinplifikatzea: indar politikoko bakoitzak, daukan indarraren arabera, gizartean eta erakundeetan daukan jarrera eta jardura zehatza da, gizartea eta errealitatea zuzentzeko ala aldatzeko. Aralarrek argi dauka bere lana eta bere jarrera zein den bi maila horietan: gizartean eta erakundeetan.

Badago kritikatu izan gaituenik Aralarrek politikagintzan jarraera ezkorra omen duelako beti, eta ez omen gaudelako akordioetarako heltzeko prest. Uste dugu ez duela merezi hemen Aralarrek historian zehar lortu izan dituen akordioak zerrendatzea, ariketa biografiko lez. Bide batez, kritika hori egin duen EAJri ere gogoratu behar diogu beraiekin ere akordioetara heldu izan garela, bi aldeek egoki iritzi izan diogunean. Hain zuzen ere, akordioetara heltzeko gogoia eta borondatea bi aldeena izan behar da, norabide bikoitzekoa, eta akordioetara heldu ez izanaren errua besteari botatzen diozunean, sarri, zure gabeziak ezkutuan gorde gura dituzulako izan daiteke.

Aralarrek argi dauka, hauteskundeetan jaso zituen 1373 pertsonen bozkek zertara bideratu behar dituen. Durangoko udalean egiten dugun lanak bi ardatz zehatz ditu: lehenengoa, udal taldearen lana kontrolatzea, ezkerreko eta abertzalea den ikuspegi batekin; bigarrena, bi oinarri horietatik hasita herria eraikitzeke ekarpenak egitea. Eta gurekin zerbait adostu gura duenak argi dauka nondik hasi. Esaterako, ordenantza fiskalen eztabaidan, gure irizpideen arabera egindako zuzenketa inguruan eztabaidatzeko hitzordua jartzea baino ez zuen. Gu prest geunden. Beraz, borondate falta ez da Aralarrena izan. Eta horrela izaten da eztabaida gehienetan: gurekin eta gu babestu gaituzten herritarrekin adostasunetara heldu gura duen edozeinek, proposamen zehatzak idatzita izaten ditu eta udaleko erregistroan sartuta.

Ordenantza fiskalen kasuan, gure bozkek abstentziara jo zuten. Ez nahikoa iruditzen zaigu PSEk udal gobernuaren proposamenari egindako ekarpena. Irizpide sozialik gabeko ordenantzak zirenak apaindu bakarrik egin dira. Aralarrek printzipio bat argi eta garbi aplikatu behar dela defendatzen du: gehiago duenak, gehiago ordaintzea. Euskadin, populazioaren % 1,3k du Barne Produktu Gordinaren %44. Dirua esku gutxi batzuetan dago. Eta egiten ditugun proposamenak aberastasunaren banaketa hori aldatzeko egiten ditugu. EAJren proposamenek, aldiz, % 98,7 horren egoera hobetzearen alde ez duela egiten uste dugu. Zergak eta tasak ezin zaizkie herritar guztiei irizpide berdinekin ezarri. Nabarmen, inoiz baino gehiago, gehiago duenak gehiago ordaindu beharko du; gaur, bihar edo etzi.

Zer esanik ez, gaur egungo egoeran, etxebizitza bat hutsik dutenek, etxebizitza horregatik gehiago ordaindu beharko luketela defendatzen dugu. Durangon, errolda ofizialen arabera 1.500 etxebizitza hutsik daude eta 1.000 durangar daude Etxebiden izena eman da. Eragiketa nahiko erraza da: hutsik dauden etxebizitzek kanon bat ordaindu beharko balute, horietako hainbat jadanik okupatuak egongo lirake. Gipuzkoan jadanik aplikatzen ari dira aipatutako kanona. Eta Bizkaian zergatik ez? Galdetu beharko genieke, azken 30 urteotan Bizkaiko Foru Aldundian eta Durangoko udaletxean gobernatzan aritu direnei, hots EAJri. Norentzako gobernatzan ari zarete?

Dani Maeztu eta Iker Urkiza Aralarreko zinegotziak (Durango)

Sei hankako mahaia



Urdaspal Bolinaga Bildu

Begiratu edo parte hartu?

Udak erdian gaude eta heldu da hotza kaleetara, denok goaz ondo estalita hotzari aurre egiteko. Baina bada beste hotz mota bat herritarrok duguna, hau gainera aspalditik daukagun hotz bat da. Kasu honetan herritarren hoztasunaz ari naiz. Hoztasun hau arriskutsua da, honi esker gobernuan daudenek beraien sistema ezarri ahal dutelako, hain zuzen ere gaur egungo egoerara eraman gaituena; % 2a baino gutxiago errekurtsioen % 44aren jabe izatea.

Kurtso politikoan hasi berri gaude eta jada kontu garrantzitsu ugari landu ditugu udaletxean. Azaroaren 6 an hain zuzen ere, ez ohiko plenoa izan genuen eta bertan Durangok BBKraiko kontseilari bat aukeratu behar zuten. Gutuna alkate andreak irailaren 18an jaso zuen, nahiz eta beste taldeei urriaren 31 n bidali. Gainera, urriaren 18rako aukeratu behar zen kontseilaria. Zergatik ezkutatzeko hori? Durangoko PSOErekin akordioa itxi behar zuelako PNVk, bere ordezkaria aurkeztu eta berai iritezko. Gauden momentuan ekonomian oso aditua den pertsona bat aurkeztea izango litzateke berea ezta? Ba PNVknola ez, beraien zinegotzia izandako pertsona bat aurkeztu zuen eta gaur egun berai entzart lan egiten duen pertsona da. Nork daki hori? Durangoko iainork. Zergatik? Herritarren hoztasunak eragiten du hori. Baina badaude aukerak hoztasun horri aurre egiteko. Horretarako herritarrak erabakien partaide sentitu behar gara eta ez delegatu guztia gobernuan dauden eskuetan, bestela emaitza badakigu zein den.

Hori dela eta, Durangoko Bildutik partaidetza hori nola burutu daitekeen jakiteko hitzaldi batzuk prestatzen ari gara, partaidetzak duen garrantziari buruz, baita gertatzen den lekuetako esperientziak aztertuz ere. Suedian adibidez urtean 4 galdeketa egiten zaie herritarrei gai desberdinen (ekonomia, hirigintza ...) inguruan. Baina ez gara hain urrun joan behar, Otxandion aurrekontuak herriko plazan onartzen dira herritar denek bozkatzeko aukera dutelarik edo Baztanen udaleko batzordeak irekiak dira herritarrentzat. Beraz adi egon, parte hartu eta ez utzi bat gehiago egin dezaten!!!

Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko azaroaren 16a
10. urtea - 480 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugaldede, Ane Elordi.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

@anbotokultura

KULTURA

AURKEZPENA > DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKA



Kultura ijitoa gonbidatu dute aurten Durangoko azokara, ikustarazteko

Abenduaren 6tik 9ra izango da Durangoko 47. Liburu eta Disko azoka. Egun gutxiago, baina "egitarau zabalagoa" dakar

Bost egun barik, lau iraungo du Durangoko 47. Liburu eta Disko azokak, baina atzoko Elkartegiko aurkezpenean nabarmendu zuten, "inoizko egitarauik zabalena izango dugu, aurten". Azokaren barruko guneeetan 300dik gora ekitaldi izango direla aurreratu zuten.

Gerediaga elkarteko Nerea Mujika eta Aiert Goenaga ordezkariak eman zuten, atzo, aurten-

go azokaren ardatz nagusien berri. Atzoko prentsaurrekoan, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzaren kultura sailburua, Miren Dobaran Bizkaiko Aldundiko euskararen sustapenerako arduraduna, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkatea egon ziren.

Ijitoen kultura izango da aurten Durangoko 47. Liburu eta Disko azokan kultura gonbidatua, eta kultura horren ordezkarietan, Kale

M. Vizarraga: "Gure ametsetako bat bete dugu, hunkituta gaude"

"Erromintxelari" buruzko hainbat berbaldi eta mahai inguru izango dira

Dor Kayiko elkarteko Manuel Vizarraga presidenteak egin zuen prentsaurrekoan berba. "Gure ametsetako bat bete dugulako hunkituta gaude, Euskal Herriaren bihotzean egon ahal izango gare-lako", esan zuen Vizarragak.

Durangoko Azokako egitaraua Kale Dor Kayiko elkartearen laguntzagaz antolatu dute, "askorentzat ikusezin bezain urrunekoa" den kultura hori ezagutarazteko.

Euskal Herritar guztiak gonbidatu dituzte "zelakoak garen ikustera, elkar ezagutu eta errespetatzera". Euskal Herrira heldutako ijitoen hizkuntzari, euskara eta erromanieraren elkartetik sorturiko "erromintxelari", buruzko berbaldi eta mahai-inguruak izango dira, esaterako, aukeran.

Ijitoen kultura ezagutzeko, umeentzako tailerrak, ipuin kontaketa saioak eta jolasak ere antolatu dituzte. Azokako gune guztietan edukiko du ijitoen kulturak isla. Aiert Goenaga azokaren zuzendariak azaldu duenez, besteak beste, flamenkoa, txalaparta eta bertsoak uztartuko dituen ikuskizuna prestatzen dabilta, gainera. Abenduaren 7an eskainiko dute, Plateruenean.

Elkarlana ardatz

Elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten aurkezpenean: "Aurreko urteetan bezala, egitaraua antolatzeko eta guneak kudeatzeko ardatza izan da elkarlana", esan zuen Nerea Mujikak.

Flamenkoa, txalaparta eta bertsoak uztartzeko ikuskizuna prestatzen

Durangoko Azokaren izaera irekia eta parte-hartzailea erakusten duten ekimenak "finkatu eta indartzea" dute antolatzaileek aurten helburu. Horren adibide da diziplina berriei leku egiteko iaz sorturiko Irudienea, Szenatokia, edota K@bia guneak egonkortuko direla, aurten.

Aurreratu dutenez, bestalde, 88 emanaldi izango dira aurten Ahotsenea gunean, eta Berbaro elkarleak umeentzako egitarau oparoa antolatu du Saguanbara txokorako ere.

Datorren astean emongo dute egitarauaren berri zehatza. ■ I.E.

Benito Lertxundiren ekarpena eskertu gura du Gerediagak Argizaiolagaz

Jon Maiak zuzendutako ekitaldi "berezia" jasoko du Benito Lertxundik Argizaiola saria



Benito Lertxundi musikari orotarrak jasoko du, Durangoko 47. Liburu eta Disko azokan, Argizaiola omen saria. Gerediagakoek Durangoko Azokarekin hasieratik izan duen lotura estua eskertu gura diote, batetik. 60ko hamarkadatik euskal musika sorkuntzan eta kulturagintzan erreferente izan delako emango diote Argizaiola.

Ez Dok Amairu taldeko Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, edo aurten Durangoko azokako kartela egin duen Nestor Basterretxearekin hasi zuen bidea Lertxundik, eta hamasei disko kaleratu ditu ordutik hona: 1971ko *Benito Lertxundi* izeneko edo aurten kaleratu duen *Oroimenaren oraina*, kasurako.

Ekitaldi berezia antolatu dute Benito Lertxundiri Argizaiola emateko. Abenduaren 6an emango diote Lertxundiri Argizaiola, Gauean Argi ekitaldi berezi batean. Jon Maiak zuzendutako du Lertxundi musikaria omentzeko ekitaldi hori. Durangoko San Agustin kulturagunean egingo dute ekitaldia.

Abenduaren 6an, San Agustin kulturagunean emango dute Argizaiola

Plateruena kafe antzokiko emanaldiak ere Durangoko Azokaren egitarau ofizialaren parte izango dira, bestalde, aurten. Aurkezpenean esan dutenez, "erreferente bilakatu dira Platerueneko kontzertuak". Azaldu dutenez, Landakogunean Durangoko azoka zabaldu baino aste-bete lehenago ekingo diote Platerueneko programazioari. ■ I.E.

Elkar

MUSIKA > IURRETAN

Ganbera orkestra batek zabalduko du Musikaldia

Kontzertu bi izango dira aurten, Iurretako Musikaldiaren egitarauaren barruan: Kataluniako ganbera-musika, eta 'El show de Dodó' ikuskizuna

Kataluniako Empordá eskualdeko ganbera-musikako orkestraren eta Musika Cabaret taldearen kontzertuak dakartza, aurten, Iurretako Musikaldia: azaroaren 24an, Aita San Migel elizan joko du Orquestra de Cambra de L'Empordá, eta

Azaroaren 25ean, Aita San Migel elizan joko du Orquestra de Cambra de L'Empordá



Azaroaren 30ean, Ibarretxe kultur etxean eskainiko dute 'El show de Dodó'.

MUSIKA >

Gazteen opera zaletasuna bultzatzeko elkarlana

Bilboko opera zaleen ABAO elkartearen laguntzagaz, ikasleak operara hurreratzeko ekimena ipiniko dute martxan Durangoko musika eskolan

Musika eskolako ikasle gazte zein helduak operara hurreratzeko ekimena abiatu dute Bilboko operaren lagunen ABAO elkarteak eta Bartolome Ertzilla musika eskolak. Operari buruzko programa didaktikoa eskainiko du, ABAOK, musika eskola horretan. Azaroaren 27an eta 28an egingo dituzte operari buruzko saio bi horiek.

Bestalde, zuzeneko musika emanaldi birako hitzordua daukate datorren astean, Durangoko musika eskolan. Musikariaren patriaren, Santa Zeziliaren eguna ospatzeko, kontzertua eskainiko dute, azaroaren 21ean, 18:00etan, eskolako aretoan.

Bartolome Ertzilla Durangoko Musika Eskolak eta Plateruena kafe antzokiak antolatutako Jam saioa izango da, bestalde, azaroaren 23an, 20:00etan, Plateruenean. Free Ends laukoteak joko du saio horri hasiera emateko. ■ I.E.

Operari buruzko programa didaktikoa eskainiko du ABAOK, Durangoko musika eskolan

azaroaren 30ean Ibarretxe kultur etxean eskainiko du Musika Cabaret taldeak, *El show de Dodó* ikuskizuna.

Mikel Deuna kultur elkartearen bultzadagaz hasi ziren, duela hainbat urte, Musikaldia antolatzen Iurretan, baina azken urteetan Iurretako Udalak hartu du musika zikloa antolatzeko ardura. Iurretarrei musika klasiko eskura ipintzea du programak helburu, eta asmo horregaz aukeratu dituzte aurtengo zikloko talde biak ere.

Batetik, azaroaren 24an, Aita San Migel elizan joko du, 20:00etan, 1989an sortu zen Orquestra de Cambra de L'Empordá taldeak. Munduan zehar ia hiru mila kontzertu eskaini ditu talde horrek, sortu zenetik. Carles Coll da taldearen zuzendaria, eta zortzi biolinista, bina biola eta biolontxelo jole, eta kontrabaxu-jole batek osatzen dute taldea. Mozarten musikagaz hasi eta Beatles taldearen doinuekin amaituko den bidaia proposatuko du orkestrak, Iurretan.

Mastretta taldeko lau musikaririk sorturiko 'El show de Dodó' entzungai, azaroaren 30ean

Azaroaren 30ean, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean eskainiko du Musika Cabaret-ek *El show de Dodó*. Musika klasiko eta zinema mutukoa oinarri hartuta, fantasiazko esparru batera eramango dute entzulea: eszenaratzeagaz eta musikariaren maisutasunagaz, 1930eko hamarkadako Berlingo kabaret bateko giroa sortuko dute Ibarretxen. Mastretta taldeko lau musikari dira ikuskizuneko protagonistak. ■ I.E.

PINTURA >

Errebonbillo margo lehiaketa, zapatuan, Elorrioko kaleetan

Kaleko margo lehiaketa da Elorrioko Iturizoro elkarteak antolatzen duen hau. Bihar izango da, eta eurek ekarritako material eta tresnekin, aukeratzeko dituzten herriko lekuak jasoko dituzte margolariek koadroetan.

Parte hartu gura duten artistek, 09:00etatik 10:00etara izena emon ahal izango dute, eta 14:30erako entregatu beharko dituzte lanak. Ondoren, 18:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Arte plastikoen adituen epaimahai batek lau sari banatuko ditu: 600, 400, 300 eta 150 eurokoak.

Azaroaren 30era arte, Iturri kultur etxean izango dira ikusgai parte-hartzaileek egindako koadroak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA
Arantza Arrazola eta Mainer Larrañaga
San Agustin kultur gunea



A zelako paronama!

Asteburuan Artedrama eta Huts teatroren *Publikoari Gorroto* izan dugu Leioan, Zornotzan, Elorrioren eta Durangon. Xabier Mendigurenek duela hogeitabost bat urte idatzitako testu batean oinarritutako lana da. Ander Lipus *tremendo* dago, ordu bete pasako ia-monologo energia eta mila aurpegiz defendatuz. Zenbat lagun batu duguz gutzira? 250 inguru. A zelako paronama!

Asteon jakin dugu 25 urte luzez Euskal Herriko bazterrak bizitu dituen antzerki konpainia itxiko dutela... Honezkeren bagenekien gainontzeko taldeak ia erdia baino gehiagok aktore-aktore sa gehienak eta bulegoan aritzen den jendea kaleratu behar izan dutela. Egun bizi-ruten dutenak EREan daudela, siglak ez ditugu itzuliko, honezkeren inor gutxi geldituko da-eta zer esan nahi duen ez dakienik. A zelako paronama!

Jakin dugu Bizkaiko udaletxe batek berea duen aretoaren kudeaketa esku pribatu utzi duela, takilaren truke lan egingo duten konpainiak kontratatzeke. Non gelditzen ote da hedatu nahi den kultura ereduaren gaineko ardura? A zelako paronama!

A zelako paronama, triste egoteko modukoa! Baina ez dugu triste egon nahi

Bitartean bakearen urtea dela eta Eusko Jaurlaritzak dirutza baino gehiago gastatu du "sekula Euskadin egin den antzerki produktorik handienean", Bilbon birritan eskaini dute eta kitto! Zaila da gastatu dutena zehatz-mehatz jakitea, baina bolo-bolo dabilen kopurua erdiarekin makinatxo bat talde eta areto jantziko lirake. Benetan hori al da antzerkiak, hiritarrek edo bakeak behar dutena?

A zelako paronama, triste egoteko modukoa, alajaina! Baina ez dugu triste egon nahi, penak barrura sartzen direnean zaila izaten da-eta ateratzea. Teatra dugu antidoto, bazatuz?

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 16 23:30ean
PAPE NDIAYE THIOPET
KONTZERTUA. Sarrera 15-18 euro.

AZAROAK 17 22:00etan
FEAR FACTORY + DUNDERBEIST + THE DEVIN TOWNSEND PROJET. 24-26euro.

AZAROAK 21 20:00etan
MUGARIK GABE
DOKUMENTAL EMANALDIA. Doan.

AZAROAK 22 20:00etan
TOÑO MURO
KANTUAREN KANTOIA. Doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

NINIKA
Elirale Dantza Taldea

Azaroak 18 € 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

ARGAZKIGINTZA >

“Egunero egiten dugun lanaren isla dira azkenaldian eman dizkiguten sariak”

Lux lehiaketan saritu dute Durangoko Deser Studioko Sergio Zubizarreta eta lankideen lana

Irailean IPA Awards argazki sarietan aipamen berezia jaso zuen argazki seriea da bigarren saritu dizuetena, ezta?

Bai, IPA sarietara aurkeztu genuen serie bera da orain Lux sariketa honetara aurkeztu duguna. Urrezko Lux saria eman digute. Lehiaketaren XX. edizioa da burutu dutena, eta sekula baino parte-hartzaile gehiago izan ditu, gainera, lehiaketak. Aurten, 1.900 argazki baino gehiago jaso dituzte.

Zein da jaso duzuen saria?

Erretratuen saileko Urrezko Lux saria eman digute. Urrezko oroi-garri bat eta diploma eman zizkiguten sari banaketan. Pasa den egunean, Bartzelonan egin zuten sari banaketa ekitaldi hori.

Zein da argazki serie horren atzean dagoen istorioa?

Calcetines Cachetes Portugaleteko musika taldearen ikuskizun berezia da argazki seriearen oinarria. Hainbat janzkera baliatzen dituzte talde horretakoek euren ikuskizunean. Argazkiak ez dira guk bilatutakoak izan, euren egiten dutena erretratatzea izan da

“Argazki asko eta oso onak ikusi genituen Bartzelonako sari banaketan”

gure lana. Argazkian agertzen diren moduan jantzita egiten dute euren emanaldia. Alde horretatik, proiektu nahiko eramangarria izan da, euren egiten dutena islatzea izan da egin duguna.

Zelako inpresioa ekarri duzue Bartzelonatik? Zelako lanak ikusi zenituzten Bartzelonako sari banaketa ekitaldian?

Maila ikaragarri altua dagoela da dakargun inpresioa. Argazki ikaragarriak ikusi ditugu, eta harrotasunez bete gaitu argazki horren guztien artean gureak saritu izanak. Esaterako, oso potenteak iruditu zaizkit publizitate arloko argazkiak, erretratu ederrak ikusi ditugu... Argazki asko eta oso onak ikusi ditugu Bartzelonan.



Sasoiko zabiltzate: sariak eta aipamenak jaso eta jaso.

Bai, urte ikaragarria ari da izaten, baina egunero egiten dugun lanaren isla dira eman dizkiguten sariak. Daukagun zorrea da, ereindakoa jasotzen gabiltzala.


Zelan ateratzen duzue zuen egunero lanaz gainera, honelako beste proiektuetan lan egiteko inspirazioa?

Autore argazkigintza da egin gura duguna, eta horretarako jakin egin behar da lan komertziala eta sortzaile eta pertsonalago hori uztartzen. Proiektu berezi eta probokatzailak gura ditugu egin.

Eta denbora nondik aterata?

Ez da erraza denbora ateratzea, baina argazkilarion 'denboraldi baxua' deitzen duguna aprobetxatzen saiatzen gara: urtarriletik martxora edukitzen dugu denbora gehiago. ■ I. Esteban

“Urtarriletik martxora edukitzen dugu sorkuntzarako denbora gehiago”



MUSIKA > EMANALDIA

Metal doinuak jotzen dituzten hiru talderen gaua, bihar, Plateruenean

AEBko Fear Factory, The Devin Townsend Project eta Dunderbeist datoz Durangora

The Industrialist diskoa kaleratu du aurten Fear Factory taldeak, eta bertako kantak Europako hirietan aurkezten dihardu laukoteak. 1989an Los Angelesen sortu zuten taldea, eta metal doinuak jorratzen

‘The Industrialist’ diskoa aurkeztera etorriko da AEBtik, Fear Factory

dituzte. Taldea sortu zutenetik metalaren barruko hainbat estilo landu dituzte: muturreko metala, trash metala, nu metala, etab. Taldea banatu egin zen 2002an, baina 2009an taldekide berriez inguratu, eta berriro oholtzarik oholtza abiatuko zela iragarri zuen Dino Cazares taldekideak.

Alemanian eta Frantzian eskaini dituzte pasa den asteburuan kontzertuak. Bihar, Durangon joko dituzte *The Industrialist* diskoko kanta berriak, Durangoko Plateruenean.

Kanadako The Devin Townsend Project taldeak eta Norvegiako Dunderbeist taldeek ere joko dute biharko Platerueneko metal musikazaleen hitzorduan. ■ I.E.



The Devin Townsend Project eta Dunderbeist taldeek ere joko dute

FINALAURREKOA

B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2012

DURANGO


Azaroaren 25ean, domeka
17:30ean - Landako gunea

ETXAHUN LEKUE

JONE URIA
FREDI PAIA
IGOR ELORITZA
GORKA OSTOLAZA
ARRATE ILLARO

www.bizkaikotxapelketa.biz

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA



Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA



www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA PSIKOLOGO KLINIKOIA

PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

 @anbotokirola**KIROLAK** >

Gustuko lekuan aldatsik ez

Mendian egindako lesioak oraindik erabat sendatzeke, Alex Txikon eta Carlos Suarez mendizale ezagunek etorkizunerako dituzten proiektuak azaldu dituzte Elorrioko Mendi Asteko konferentzian



Alex Txikon eta Carlos Suarez mendizaleak, Elorrioko hitzaldian.

Alex Txikon (Lemoa, 30 urte) hanka igeltsatuta etorri zen; Carlos Suarez (Madril, 40 urte) berriz, hiru saihesten eta masailazurraren hausturetatik errekupeatu berri. Arriskuak hartzearen ondorioak dira. Mendiak ez du barkatzen. Hala ere, biak ala biak proiektu eta espedizio berriak prestatzen ari dira. Suarezek dioten moduan: "Gustuko lekuan ez dago aldatsik". Biek Elorrioko Mendi Asteko konferentzian parte hartu zuten atzo.

Mendizale ezagun biek 2005ean elkar ezagutu zuten lungo hitzaldi ziklo batean, baina elkarrekin mendian bizitako lehenengo esperientzia iaz izan zen, Pakistango Gasherbrum I zortzimilakoan (8.068 m). Ezin izan zuten gaina zapaldu. Eguraldi txarraren ondorioz, 7.300 metrotan geratu ziren.

Harrezkero, hainbat bider irten dira mendira elkarrekin, baina ez eskalatzeko helburuagaz, afizio eta adrenalina iturri berri bat partekatze baina: oinarrizko saltoa. Oinarrizko saltoa parakaidismoko modalitate bat da eta hegazkinetik beharrean oinarri finko batetik (mendia, eraikina...) salto egitean datza. Carlos Suarez mota horretako saltoak egiten aitzin-

daria izan zen Espainiako eskalazailen artean, eta apurka-apurka Alex Txikon ere zaletzen ari da.

Suarezek mila salto inguru egin ditu parakaidismoan eta

horietako 400 bat oinarrizko saltoan. Txikonek ehun salto inguru egin ditu, horietako hamar lurretik 200 metrotik behera zegoela. Lemoarraren esanetan, modalitate horrek

asko betetzen du psikologikoki: "Lurretik hain hur zaudela norberaren buruaren kontrol itzela behar da. Psikologikoki, asko erakartzen nau oinarrizko saltoak". Eskaladagaz konparatuta

duen kontrasteak erakartzen du Suarez: "Mendian beti zabil-tza metro bat gorago joateko borroka etengabea. Oinarrizko saltoa azkarra da, berehalakoa, ez duzu amildegiairen kontra borrokatzen; areago, zeure burua sakanean behera botatzen duzu".


Bi-biek euren azalean probatu dituzte grabitateagaz jolasteak dituen arriskuak. Abuztuan Madrilgo Galayos gainetik salto egin, haize-boladek bere ibilbide naturaletik atera, eta arroka batzuen kontra jaurti zuten Suarez. Masailezurra eta hiru saihesten apurtu

Datorren urteko urtarrilean Pakistango Laila Peak mendira joateko asmoa dute

zituen. Hala ere, pozik dago: "bizia galtzeko arriskua izan nuen". Gaur, ia guztiz errekupe-ratuta dago. Txikonek pasa den astean apurtu zuen hankako peronea, parapenteagaz lur hartzen zebilela. Hanka igeltsuta dauka.

Suarezek lesioak elkarrekin egin beharreko bigarren espedizioa zapuztu zien. Madril-darrak ezin izan zuten udan Groenlandiara joan, Ula mendian bide berri bat irekitzera. Gorpuzteko minak min, espedizio horretara joan ezin min handiagoa eragin ziola onartu du.

Datorren urterako beste proiektu bat dute elkarrekin: 2013ko urtarril amaieran Pakistango Laila Peak mendira (6.096 m) joateko asmoa dute. Suarezek ez daki joaterik izango duen, beste konpromiso batzuk ditu-eta. ■ J. D.



Xabi Ormazabal 2004an hil zen Cho Oyu jaisten zebilela.

Mendian hildako anaia berbagai Ormazabalek

Andoni Ormazabalek Xabi anaiari buruz egindako dokumentala erakutsiko du gaur

Xabi Ormazabal mendizale urretxuarraren hitzaldiak itxiko du Erdella mendizale taldeak asteon antolatutako Mendi Asteko konferentzia zikloa. Ormazabalek 2004an mendian hil zitzaion Xabi anaiari buruzko dokumentala eskainiko du gaur, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Bertaratzen direnen galderei ere erantzungo die.

Xabi Ormazabal 2004an hil zen Cho Oyu (Himalaya) zortzimilakoa jaisten zebilela. Cho Oyu munduko seigarren mendirik garaiena da 8.201 metrogaz.

Anaia biek garrantzia handiko hainbat lorpen lortu zituzten elkarrekin. 2001etik 2004ra sasoi bateko Sovietar Batasuneko bost gailurrik garaienak igo zituzten. Gailur horiek igotzea lortzen dutenei 'elurretako lehoiabarrak' deitzen diete eta ezizen horretatik dator Elorrioren erakutsiko duen ikusentzunezkoaren izena: *Elurretako lehoiabarraren bila*.

Cho Oyurako espedizioaren aurretik Shisha Pangma zortzimilakoa (8.027 metro) igo zuten. Handik hilabetera joan ziren Cho Oyura, ezbehera gertatuko zen mendira.

Mendiak eta atletismoak klub berria dute eskualdean

Durango Kirol Klubak mendi lasterketetako zaleen bilgune izan gura du; atletismoari ere atea ireki diote, eskaria badagoela ikusita



Durango Kirol Klubeko kide batzuk eguaztenean, Arripausetako entrenamendu saioan.

Mendi lasterketetarako zale-
tasuna egon bai, baina Durangaldean modalitate horretara beren beregi bideratutako klubik ez zegoenez, Durango Kirol Kluba sortu zuten orain hilabete batzuk hainbat lagunek. Durangaldeko mendi lasterketa zaleen bilgune izan gura du klub berriak, elastiko bera defendatuz lehiatuko duten korrikalarien atarpe amankomuna. Azken asteetan, atletismoari ere atea irekitzea erabaki dute, talde bila zebiltzan atle-
tei aukera bat eskaini guran.

David Garcia eta Oier Ariznabarreta korrikalari durangarrak, esaterako, Durango Kirol Klubeko kideak dira. Mendi lasterketen denboraldia urtarrean hasiko da, eta oraindik egutegia osatzen dabilta; baita denboraldiari aurre egiteko babesle bila ere.

Lehenengo denboraldian Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan lehiatzea dute helburu, mendi lasterketetan zein krosean. Mendi lasterketetan taldeko Espainiako txapelketan aritzea ere gustatuko litzaieke.

Atleta asko Bidezabaletik

Atletismoari dagokionez, 24 fitxa dituzte gaur egun, eta bizpahiru kenduta, beste guztiak Bidezabal klubetik batu dira; krosean edo abiadura lasterketetan dabilta gehienak. Egoera ekonomikoak eraginda, Bidezabalek gizonei soldatarik ez ordaintzea erabaki du oraintsu. Hala, baten batek pentsa dezake klub berria norabide horregaz ados ez daudenek sortu dutela. "Ez du horregaz zerikusirik", argitu du David Garcia: "Kluba sor-

tzea aspaldi pentsatuta geneukan. Nik neuk, Bidezabaleko zuzendaritzan daudenekin berba egiten dut, eta ez dugu arazorik. Klub berri honetan ere nork bere fitxa eta jantziak ordaindu beharko ditu. Eskualdeko atleta batzuk talde bila zebiltzala jakin genuen eta horiek kanpora joan beharra pena zela iruditu zitzaigun, bertan klub berri bat sortzen ibilita".

Dena dela, David Garcia bera ere Bidezabalen ibilitakoa da, eta onartu duenez "goi mailako taldeetan atleta asko kanpokoak dira eta zure ondoan lehiatzen dute, baina ez dituzu ezagutzen; guk nahi duguna da, lasterketa batean ondokoak zure elastiko berdina jantzita badarama, ezaguna izan dadila, behintzat". ■ J. D.

Garcia laugarren izan zen Behobia-Donostian

David Garcia atleta Durangoko Kirol Klubeko elastikoagaz lehiatu zen



Felix Sanchez

Pasa den asteburuko Behobia-Donostia lasterketa ezagunean laugarren (1.03.26) amaitu zuen David Garcia —argazkiaren ezkerrean— Durango Kirol Klubeko elastikoagaz. 27 urteko durangarra segundo bigatik ez zen podiumean sartu. Daniel Bayón eta Alberto Revueltagaz heldu zen azken ehun metroetara, eta esprintean erabaki zituzten hiru, lau eta bosgarren postuak. Bayón sailkatu zen hirugarren, apur bategatik: "Hasieran pena eman zidan; gero, pentsatzen jarraitu, Behobia-Donostian laugarren amaitzea emaitza itzela dela konturatu nintzen". Lasterketan parte hartzen zuen bigarren aldia zuen. Orain urte bi, zortzigarren sailkatu zen (1.05.31).

Hemendik asteburu bira Santurtzi-Bilbao lasterketan parte hartuko du. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Unai Zamalloa
Saskibaloia entrenatzailea



Denboraldiaren balantzea

Bai. Horrela da. Gure talde guztiak lehiatzen ari dira. Txikiak ere hasi dira aurreko asteburuan, eta nagusiak badabilta aspaldian lanean.

Nire ustetan, aurten gure talde nagusi guztiek, gutxienez aurreko postuetan egoteko aukera izango dute. Batzuk gehiago besteak baino, baina gora begira egoteko lehiatzen ari dira. Hori asko da gaur egun, eta nik uste denboraldi bukaeran talderen batek poztasun handiren bat emango digula aurten.

Esaterako, Tabirakoko lehenengo mailako neska sailkapenaren erdialdean daude kokatuta, hiru garaipen eta hiru porrotekin, baina taldea sendotu eta landu ahala gorantz egoteko aukera du eta ez da talde samurra izango edonorentzat. Baina, hori bai, lana gogotik egin beharko dute.

Tabirakoko lehenengo mailako mutilak oraindik hobeto dabilta aurten. Bost garaipen eta bi porrotekin, lehenengo postuetan daude kokatuta, eta gora begira daude. Nahiz eta multzo zaila izan euren lanean gogor ari dira eta aurten egin duten taldeak edonori erantzuteko gaitasunak ditu. Nire ustez, lana gogoz, gogor eta asko egiten badute goiko taldeekin borrokan egongo dira urte osoan, hurrengoan gorago egoteko. Momentuz horretan ari dira. Jarraitu horrela!

Zornotzako EBA mailako taldea ere lanean hasita dago. Hiru jardunaldi jokatu dituzte. Bigarren partiduan porrot esanguratsua izan zuten. Partidua lan gutxi eginda irabaztea nahi izan zuten, eta kontrakoa lortu zuten. Lehenengoan eta hirugarrengoan oster, lesioak ahaztu eta lana gogotik eginez garaipena lortu dute. Bide horretatik jarraituz poztasun asko eman-
go dizkigute. Animo denori!

Calleja Cafes Baque txapelketatik kanpo

Dario errioxarra gehiago izan da eta Julen Calleja zaldibartarra kanporatu du pilotan

Cafes Baque Pilota Txapelketan Julen Callejak ezin izan du final erdietarako txartela lortu. Mañariko pilotalekuan jokaturako partiduan Dario Gomez errioxarra 18-3 menderatu zuen zaldibarko pilotari gaztea. Errioxarra iaz Cafes Baque txapelketa irabazi zuen kadete mailan, eta aurten ere txapelketa irabazteko faborito nagusien artean dagoela erakutsi zuen.

Gomezek agindu egin zuen pilotean, eta erraz aritu zen. Hala ere, Callejak ez zuen etsi eta asko defenditu zuen airez.

Hartara, Durangaldeko ordezkari bakarra geratzen da txapelketan. Eneko Callejak Etxebarria gernikarra izango du arerio datorren eguaztenean, Atxondon. Etxebarria da faborito. Calleja sake-errematean saiatuko da. ■ J. D.

Etxekoak Ipar Euskal Herrikoen aurka pilotan

Tornosolo Kopako final laurdenetako lehiak dituzte gaur Antxia, Uriarte eta Gonzalezek

Tornosolo Kopan final laurden erakargarriak jokatu dituzte gaur, 18:00etan, Abadiñoko trinketean. Buruz buru, Durangaldeko hiru pilotarik Ipar Euskal Herriko beste hiru pilotariren aurka jokatu dute, final erdietarako txartela lortu guran.

Mikel Gonzalez berrizarrak Jeannots izango du aurkari; Ander Antxia abadiñarrak Bonetbelcheri egin beharko dio

aurre, eta Rober Uriartek Lambertek aurka jokatu du.

Gaurkoa izango da Ipar Euskal Herriko hiru pilotarien estreinaldia Tornosolo Kopan. Etxeko pilotariek, aldiz, fase bat baino gehiago gaintu behar izan dute. Esaterako, Rober Uriartek latz sufritu zuen Mikel Rafael kanporatzeko (40-36). Ordu eta erdiko partiduan jokatu zuten nor baino nor. ■ J. D.

“Erritmo handiko partidua eta azkarra izango da”

Berasaluzek lau t'erdiko finalerdia jokatuko du bihar, Labriten

Pablo Berasaluze berriztarrak bere ibilbide profesionaleko hitzordurik garrantzitsuenetakoa du bihar arratsaldean, Iruñako Labrit pilotalekuan. Oinatz Bengoetxeari irabazten badio, lehe-

“Sakean asmatuz gero, errematea bilatzen saiatuko naiz”

nengoz lau t'erdiko txapelketako finalerako sailkatuko da. Ez hori bakarrik: 1989an kaiolako etapa modernoari ekin zitzaionetik, finalera heltzen den lehenengo bizkaitarra ere izango litzateke.



Lehenengoz lau t'erdiko finalera sailkatzen saiatuko da Pablo Berasaluze.

Eguaztenean baztertu zituzten partidu horretarako pilotak, eta Berasaluze gustura dago saskian aurkitutakoagaz: “Aitzakiarik gabeko pilotak dira. Bengoetxearenak bote gehiagokoak dira beharbada, baina denak ere pilota politak”.

Partiduari buruz, sake errematea aprobeztatzen saiatuko dela esan du: “Sakeak garrantzi handia izango du. Sakean asmatuz gero, errematea bilatzen saiatuko naiz ostean. Bion jokamoldea zein den ikusita, erritmo handiko partidua izango dela uste dut; partidu azkarra”.

“Partiduak hasi aurrean nerbioak beti etortzen dira; orain lasai nago”

Partiduak ikusmin handia piztu du Bizkaian, baina berriztarrak lasai dago: “Dei asko jaso ditut, kalean jende askok geratu nau... Partidu hauek horrelakoak dira. Finalerdia hasi aurrean beti etortzen dira nerbioak, baina orain lasai nago”.

Finalerdia jokatzeke enpresak aukeratu duten pilotalekua ere ez du kexarik berrizko pilotariak: “Binaka askotan jokatut han, eta biok ondo ezagutzen dugu frontoia. Gainera, Labriteko zaleak beti oso ondo portatu dira nirekin, giro ona egoten da eta alde horretatik ez dago arazorik”. ■ J. D.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Laudio
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Elorrio - Deusto
Zapatuan, 17:00etan,
Eleizalden
LEHENENGO ERREGIONALA
Abadiño - Basurto B
Zapatuan, 15:30ean, Astolan

ARETO FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kurutziaga - Lagun Onak
Zapatuan, 19:45ean,
Landako kiroldegian

SASKIBALOA
LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako - Astigarraga
Zapatuan, 19:00etan, Landakon

PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA
(final laurdenak)
Lau t'erdian:
- Ansotegi - Irribarria
Binaka:
- Albarado-Tabar / Urbleta Tolosa
Azaroaren 22an, 21:30ean,
Zaldibarko pilotalekuan

ERRUBIA
EUSKAL LIGA
Elorrio Parra Taberna - Kanpazar Arrasate
Zapatuan, 16:00etan. Aurretik,
10:30ean 14 urtez azpikoak:
Elorrio, Durango eta Hernani.
12:00etan 16 urtez azpikoak:
Elorrio-Durango

III. Kuttun Ipuin lehiaketa



“DENDAK ZABALIK HERRIA BIZIRIK”

Mailak

6 urtetik 8 urtera - 9 urtetik 11 urtera - 12 urtetik 14 urtera.
Aurkezteko epea: azaroaren 12an hasiko da eta abenduaren 3an bukatu.

Oinarriak

Ipuinen gehieneko luzera 3 orrialdekoa izango da, eskuz idatzita eta gaiak leloarekin zerikusia eduki beharko du.

Ipuinak izenik gabe aurkeztuko dira eta gutun-azal batean izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa jarriko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak erregalutxo bat lortuko du eta maila bakoitzeko sari bat izango da. Sariak abenduaren 26an emango dira jakitera Arriola-Ateneo aretoan, arratsaldeko 17:00etan.

Ipuinak aurkezteko lekuak:

GARBIÑE - DITARE - SAGASTIZABAL
INES MODA - ZAINDU ALBAITARITZA



AISIALDIA

mendi ibilbideak



Durango M.T.B.



Urkiolara hurreratzeko aukera ematen duen ibilbidea

Mendi bizikletaz egiteko ibilbide honek Urkiolako Parke Naturala dauka erreferentzia. Asti gutxi edukiz gero oso aproposa da.

Buelta handi bat egiteko denborarik eduki ezean, ibilbide egokia da Urkiola inguritik doan hau. Ordu bi eta erdiko iraupena dauka, eta Urkiolako Parke Naturala erreferentzia legez daukan arren, beheko zonaldeetatik eroango ditu bizikletariak. Durangoko Andra Mari basilikatikirtenez gero, esaterako, Tabira aldera jo beharko dalehenengo. Abadiñorantza joan eta auzoetatik Mendiolara ailegatzea izango da hurrengo pausoa. Hortik, Atxarterako norabidean joatea eskatzen du ibilbideak.

Atxartetik gorantz egin behar dute gero txirrindulariek. Aldats


gogorrek egongo dira metro horietan. Asuntze edo Pol-Polerako norabidea beharrez, Txakurzulorako hartu behar da ostean. Paisaje ederak eskainiko ditu, uneoro, ibilbideak. Adibidez, Anboto, Alluitz eta Astxiki mendien magaletik ibilita ikuspuntu berriak ezagutu ahal izango ditu bizikletariak.

Txakurzulotik behera
Txakurzulora ailegatzean, BI-623 errepidean sartu eta Mañarirantz joatea geratuko da. Errepideaz gainera, landetatik joateko aukera ere egongo da une batzuetan. Mañaririk Izurtzara jarraitu eta Durangora heltzeko gutxi faltako da.

ZER IKUSI...



Alluitz eta Astxiki.



Anboto.

DISTANTZIA

24,5 km

IRAUPENA

2 ordu 30 min

IGOERA METATUA

760 m

ZAILTASUNA

Gogorra

laguntzaileak

babesleak

“Zure martxari eutsiko dion auto bat bilatuko dut.

Eta emandako hitza betetzen ez badut, behar izanez gero Australiaraino bultzatuko zaitut olatu handiaren bila.”

Andonik esana



**RENAULT GRAND SCÉNIC
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105CV
2010 Urtekoa

15.900€*

**RENAULT
OCASIÓN**

12/11/30-erarte edo izakinen amaierararte baliozko eskaintza. Irudiko modeloa Renault Grand Scenic Emotion da.

RENAULT recomienda elf



GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Azaroaren 9an etorri zan **Magali** gurera. Aitaxo eta amatxo desiatzen egon dira bere aurpegitxo ikusteko. Ia noz goiezan Anbotoko lagunengana!



Aiur Gorriti Martinek azaroaren 14an bete zituen bi urtetxo. Zorionak The Escandinavians taldeko gitarristari familia eta lagunengana partez!



Unax Blancok eguaztenean, azaroaren 14an, 7 urte bete ditu. Zorionak eta mosu handi bat Izar eta gurasoen partez!



Zorionak **Maddi!** Aurten esku bete urte! Gure neska handi hazten ari da. Mosu handi-handia etxekoengana partez!



Zorionak **Beñat!** Pasa dan barikuen 20 urte bete ebazan! Berandu baina ez indder gitxiuaz, ljoirretatik Uxue eta Anartzek!! Mosu bat!!



Zorionak **Mesie!** Aurten be aho zabalik itxi gaituzue, fenomeno hutsak zarie! Irabazlea izan dan Korleone taldeari be zorionak eta animo. Txapela kentzen dogu zuon guztion aurrean! Chapo.



Azaroaren 14an **Ainhoak** 13 urte bete ditu. Zorionak lurretatik Gerardo, Maritere, Uxue eta Anartzengana partez!



Eguaztenean gure amatxo **Arantzak** urte asko beteko dauz. Zorionak! Aitaxo, Irati eta Oroitzen partez! Mosu piloa!



Urriaren 26an gure amama **Irenek** urteak bete ebazan. Zorionak eta mosu handi bat iloba guztien partez!



Joan den azaroaren 8an urteak bete zenituen **Nagore**, besarkada bat gure partez! Igone eta Mikel.



Zorionak **Nora!** Egun polita pasa dezazula! Besarkada eta mosu bat Nahia, Elene eta familiako gainerakoengana partez!



Gaur, azaroaren 16an, **Haizeak** 4 urte bete ditu. Zorionak kuadrilaren partez! Mosu piloa potxola!



Zapatuan, azaroaren 17an, **Kimetzek** 3 urte beteko ditu. Zorionak mutil handi! Musuak kuadrila osoaren partez!



Azaroaren 20an **Rakelek** urteak beteko ditu. Zorionak eta mosu handi bat Inhar, Eider eta Ibonengana partez!



Hona hemen Elorrixoko gazteek Anbotora bidalitako argakia



Domekan, azaroaren 18an, **Ekhik** 4 urte beteko ditu. Zorionak Paulen partez eta mosu pila kuadrilaren partez!



Nire arrebatxo **Madalenek** azaroaren 17an urte bat beteko dau. Etxeko guztion partez zorionak! Eta nire partez, mosu haundi bat Munina!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Parte hartzeko, datuak bidaltzea beharrezkoa da.

BOTIKAK >

- Barikua, 16**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Abxondo)
- Zapatua, 17**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamuzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- 09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Domeka, 18**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- Astelehena, 19**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
- Martitzena, 20**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Eguaztena, 21**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
09:00-22:00
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Eguena, 22**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
Matiena606 45 99 88
Durango Geltokia94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
J.L. Uriarte670 40 20 02
I. Estebez670 67 82 73
M Galeano670 40 93 30
lurreta94 620 15 65
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz.....94 682 45 84
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz.....94 682 40 36
Durango.....94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

- EGURALDIA** >
- 18
20° BARIKUA ☁
- 10
16° ZAPATUA ☁
- 7
12° DOMEKA ☁
- 7
15° ASTELEHENA ☁
- 7
16° MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) -
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Tomatea 3,50 euro/kg
Piperrak 1,70 euro/doz
Bainak 5 euro/kg
Kalabazina 1,80 euro/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx
Arraultzak 3,60 euro
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Gari ogia..... 3,30 euro



"Zineman, nahiago ditut dokumentalak fikzioa baino"

New Yorketik erantzun ditu galderak Aitor Mendilibarrek: Dokumentalen Zinematografia ikasten dabil han

Dokumentalen bidez munduko errealitateak bere pertzepzioetik kontatu gurako lituzke. Zaldibartik New Yorkera hegazkina hartu, eta hantxe dabil Aitor Mendilibar *Mendi*, Dokumentalen Zinematografia ikasten. Disorders taldeko kide izandakoak soinu bandak aukeratzeko buruari buelta asko ematen dizkiola azaldu du.

Gustura bizi zara New Yorken?

Beste ikasle bigaz apartamentu batean bizi naiz, Brooklyn-en, langileen Bedford-Stuyvesant auzoan. Giro afroamerikar-jamaikarrean gustura, bertakoen hartu-emonak Manhattan-en edo New Yorkeko beste leku batzuetan baino askoz estuagoak dira. Bestalde, auzoan ez dago taberna askorik, eta garagardo batzuk hartzeko metroa hartu eta hiriko beste zonalde batzuetara joaten naiz.

Zelan joan zara, ba, haraino?

Ekainean amaitu nuen ikus-entzunezko bi urteko kursoa Gasteizen, eta asko disfrutatu dut bai klasean, bai lagunekin egindako proiektuetan. Irakasle batek eskola honi buruz hitz egiterakoan, ikus-entzunezkoetan gehiago sakontzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan, eta bide batez ingelesa behingoz behar den moduan ikas-tesko aukera ere bai. Langabezian nengoen eta Disorders taldeagaz ere amaitu genuen; beraz, bizitzak eskainitako aukera honi ezin ezetz esan.

New Yorketazine eskola irudikatu zenituen modukoak dira?

Zaldibar moduko herri txiki batek New Yorkera kristoren alde dago baina espero baino arinago

ohitu naiz. Adibidez, taxi, jatetxe eta tabernetan utzi beharreko eskupekoagaz pixka bat galduta ibili nintzen hasieran, baina segituan moldatzen zara. Eskolan gehien harritu nauena klasean jateko dagoen ohitura da; oso normala da ikasleek eta irakasleek bazkaltzea, meriendatzea edo kafea hartzea.

Noiztik zara zinezalea?

Betidanik gustatu zait zinea, baina esango nuke Gasteizen ikasten egin nintzela benetako zinezalea. Zinemak osotasunean erakartzen nauen arren, nahiago ditut dokumentalak fikzioa baino. Munduan uneoro dabilta gauzak pasatzen: kontatzea merezi duten istorio interesgarri piloa, bai eta salatu beharreko injustizia mordoa ere. Dokumentalek errealitate horiek nire pertzepzioagaz kontatzeko aukera paregabea ematen didate, hedabide nagus-

sien desinformazioaren alternatiba bezala.

Bideoklipak eta egiten ibili izan zara Euskal Herrian...

Gasteizen kursoan ibilitako hiru zaldibartar elkartu ginen eta gure kabuz bideoak egiten hasi ginen. Horrela sortu zen *Kredits Productions*. Disorders taldearen bideo-klipagaz hasi ginen, eta orduetik aurrera hainbat bideo egin ditugu gure lagunentzako -Disorders, Sermond's, lheskide- eta hainbat elkarrentzako. Orain ere bagabiltza beste proiektu batzuek, urrun egonda ere jarraitzen dugu lanak emoten. Gure lanak ikusgai daude gure youtube eta vimeo-ko kanaletan.

Musika arloan jardunda, soinu bandak garrantzitsuak izango dira zuretzat...

Pelikuletan, soinu banda ezau-
garrigarran-
tzitsue-
netako
bat da,
batez
ere sen-

timenduak transmititzeko. Pelikula bati soinu banda aldatuz gero, guztiz alda daiteke ikusleagoak jaso dezakeen mezua eta emozioa. Denbora dezente pasatzen dut filmeetarako musika aukeratzeko, arrazoituz aukeratzeko saiatzen naizelako, askotan desesperazio puntu bateraino. Ez zait batere erraza egiten.

Zelako beharrak egin gurako zenituzke etorkizunean?

Dokumentalak eta horrelako proiektuak sortzea gustatuko litzaidake, baina oso gaitza da. Beste batzuentzako lan egitea ere gustatzen zait, asko ikasten da, baina aukera edukiz gero, neure filmak sortzen ahaleginduko naiz. Ez daukat presarik. Kursoa abuztuaren amaierako da eta gero AEBetan lanean beste urtebete geratzeko aukera ematen du eskolak. Momentuz, ez nabil horretan pentsatzen. Nahiago dut momentua bizi; etorriko da etorri beharrekoa.

Zelan bizi izan duzu Sandy urakana?

Beste leku batzuekin konparatuta, ez nuen sentitu ere egin. Auzoan zuhaitz batzuk eta pare bat paretak jausi ziren baina ez genuen argindarrik galdu eta ez zen uholderik egon. Metroa, ostera, itxita egon zen lauzpabost egunetan eta eskola astebe-
tez egon zen itxita, argindar barik.



Aitor Mendilibar, 'Mendi' •

Zaldibartarra da

Dokumentalen zinematografia ikasten dabil New Yorken

Juanito
Gallastegi
Abadea



Lehen, tira! Baina orain...

Lehen ez genkien hizkuntza batek gure aurretiko guztiak lotzen ginduzenik.

Lehen ez genkien zein garrantzi dauen hizkuntzak Herri baten iraupenean eta norberaren nortasunean.

Lehen ez genkien hizkuntzak gu geu egiten gaituenik eta bakoitzari nortasun berezia emoten deusnik.

Gurera jota, lehen ez genkien euskerea zer zen, noizkoa zen, zertarako zen... ez genkien Europara indoeuropear hizkuntzak etorri ordukoa zenik be.

Lehen ez eukan lekurik politikan, administrazioan, irakaskuntzan. Elizan ozta-ozta...

Lehen ez genkien euskerea zer zen, noizkoa zen, zertarako zen

Lehen unibertsaltasunez, dotoretasunez, jakituriaz, gaurkotasunez... janzteko, erderaz egin beharra egoan.

Eta bidezkoa denez, mundura zabaldu guran, gizaki osotuak izan guran, gaurkotasunez bizi guran... zer egingo gunduan ba? Geure txokotxoan geratu? Ez holakorik! Traste zaharra eta alperrekoa gunduan euskerea leihotik kanpora bota, eta kito!!!

Orain, oster, beste egoera batean gagoz. Ez genkizan gauza horreek, eta gehiago be, badakiguz. Eta lehen itxita egozan ate asko be edegi egin dira.

Zer egin orduan? Modernoak garalakoan, ezjakintasunean, lehengoan, linboan, iraun? Urre gorri guztiak baino baliatsuagoa dana traste zaharra dalakoan gure etxetik jaurtitzan jarraitu? Ez gaitzean mozoloak izan!

Zer egin orduan? Modernoak garelakoan, ezjakintasunean iraun?

10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) /
MENU ERDIA 7,50€ / UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ /
ZAPATUETAKO MENUA 13€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ /
ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ /
MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /



10€
HAMARREKO
MENUA

